EGUNA
JEL

Zeure Aberrijaren izkerea ezpa-dozu maitetan, eztozu maitetan zeure Aberrija bez

Lgo. urtia | 19'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 1937'gn. Urtarrilla 22'gna. barikua | 15 eunen

Inglaterra'ren jokabidia ezta zuzena

Estado paxistak gudariak bialtzen dituen artean Inglaterra'k eleuke galerazo biar, esan dabe ingles jakitunak

"Orain komunismuaz bildurtuten diranak, len, sozialismoa gizentzen joiala-ta, gora-goraka ebiltzan; katolikoak euren gizarte-irakaspidea azaltzean, larri ziran; españar Errepublika ezarri barritan gizarte zuzenaren aldeko aginduak zirala-ta, estu ikusi genduzan". Orrelaxe agertzen da Osorio y Gallardo idazlan sakon baten, España'ri begira.



EGUNON

ARIGARIA da egiz Euzkadi'ko yaurlaritzak yan eta edangayak gure eri maite onetara zuzentzen egiten dauan lana eta alegiña.

Sei ilabete aundi aundiak igazi dira triskantza ikaragari au sortu zala, eta ago betean esan geinke, gure Bizkai onetan ez dala, gaur artean beintzat, ezetariko bear izanik nabaitu.

Egia autortu nai baldin badogu, ez dago goserik gure artean, eta au, gure ustez, agintaritza toki goirengoetan ditugun gizon leyal-zintzoeri zor dautsegu. Boa bada, leku onetatik, gizon orentzako gure txalorik eta gorazarerik bero-beroena.

Baña gure egunoroko yardungaya norabait zuzendu bear, eta, dira trukearekin yazoten yakuna aitatu nai dogu gaur emen.

Aspalditxoan, gaizki bere gaizki gabiltz ibili diru txikiekin. Ezin dogu ogerleko baten kanbioa iñondik-iñora zuzendu, trukatu nai dan ogerleko ori papelezkoa baldin bada atan bere.

Gure arerio amoratuak ekari dauskuen matasa bari eta sakon-sakon au laster atonduko dau aurki, gure gobernu argi-argiak, ba, oretarako, pezeta bateko eta peseta erdiko diru biribil-biribilak egiteko ardurea emon dautso beronek Frantzi'ko etxe entzutetsu bateri.

Laster ditugu ba, datoren ilaren lenengo egunetarako edo, a'n bearak ditugun diru txiki orek gure erian, eta oretara, gaur darabilgun buruauste itzal au zelanbait atondu egingo dogu.

Badauke España muga barualako beste eri batzuek gure aberiko Gobernu onen egitada, onetan zer ikusi eta zer ikasi; izpilu edera da auxe beste eri batzuentzat, benetan. Baña ez daitela yazo gero, diru txiki bari onekin bere, beste zidarezkoekin yazo izan yakuna. Ardura auxe begien aurera ekari, eta argitu nai dautsegu gaur leku onetatik, agintaritza toki goirengoetan ditugun gizon trebeeri.

Gure alegin eta lan guzti-guztieri aurean trabak eta eragozpenak yarteko zeregiña eta ardurea euren gain aspalditxoan artuta dauken lagun askotxo ditugu ondiñokaren gure tartean sarturik eta lagun donga onek ez dabe ez egunez ez gabaz arean lorik egiten; euren egitada biurrak aurera eroateko, ez dabe atsedenik artzean.

Eskutuko patxistakume oneri bidera urten bear yake sutsu eta adoretsu, ta aurkitzen diran tokian eskua ezari; euren alegin dongak indar osoarekin ezereztu, eta merezi daben zigorkadea egotzi.

Onetariko lagunak, or gorago esan dogun legez, beti agertzen dira Gobernuen bidean guztitariko traba eta eragozpenak yarteko gertu, ta zur bizi izan bearko dogu eurekin beraz.

[illegible]tariko eragozpen edo trabaren bat sortzeko alegiñetan dabilena, gure arerio bizi-bizia da, eta era batera, eriaren kaltean ari da.

Eriaren kaltean ari dan pristi amoratua bariz, ezin ibili leiteke ortik kalerik kale aske lagun leyalen artean; kerizpea bar dau, ba, oretara yokatzen ezpaldin badogu, galduak izango dira eriaganako darabilguzan alegin eta ardura guzti-guztiak.

Ia ba, zur bizi, eta aurera yo.

ARUGAIN.

GUDA ZAINGOA

Euzkadi'ko guda-ikastola

Ikastola onetarako eskatu daben artian gaur sartze-azterketa egin biar dabenen ixenak.

INKIÑERUAK

Arieta Llona'tar Kandida.
Uribari Bilbao'tar Jon Ugutz.
Epeldegi Fernandez'tar Toma.
Etxebaria Martinez de Baeza'tar Jabier.
Urioztе La Cuadra'tar Joseba Mikel.
Ibeas Sevilla'tar Beremunda.
Urutia Larinaga'tar Emili.

ARTILERUAK:

Gayo Canton'dar Alexander.
Jimenez Garcia'tar Rogeli.
Hernando Ibarbia'tar Justa.
Abos Bidaña'tar Alberta.
Sanchez Orquin'dar Josu.
Alfaro Martinez'tar Karmel.
Gonzalez Rodriguez'tar Ponpeya.
Gil Marcaida'tar Koldobika Lonarta.
Fariñas Lopez'tar Serapin.
Bolegi Zuloaga'tar Iñaki Mirena.
Esteban Carazo'tar Toma.
Sanchez Arana'tar Iñaki.
Carrera Garcia'tar Emili.
Uribari Gazteiz'tar Pilliperta.
Rodriguez Baldes'tar Augustin.
Intza Zubia'tar Pantzezka.
Marcos Garma'tar Aristoteles Andoni.
Goirizelaya Uriarte'tar Joseba Mirena.
Villate Arena'tar Todormira.

Oara.—Azterketak aratsaldeko iruretan asiko dira.

Azterfuko diran gustiei adierazoten yakoe logaritmoen ereskadea eruan [illegible] dabela.

Gastedien agiria

Madrid.—Alkartutako gastediak agiri bat zabaldu dabe. Bertan diñoenez gastediaren odola ugari ixuri da eriaren ixena gaizkatuteko eta azkatasunaren ikurriña zabalik dago Madrid'en.

Paxistar eriak bialdu leikezan gudari gustiak ezingo dabe ezer egin gastedi alkartuaren aurka.

Betiko il da geratuko dira españar lurean.

Zaratamo'n, umien gaxo-etxeko jatokija.

Ingeles argi batzuk diñuena

Inglaterra'ren jokabidea ezta zuzena

Esfadu paxistak gudariak bialtzen dituen artean, Inglaterra'k ez leuke galazi bear

Londres.—"The Times" egunerokoak, ingelandar irakasle jakintsu batzuen kartak argitaldu ditu.

Jakintsuok, onexek dira. Herbert Wells, Cole irakaslea, Norman Angell eta William Jewitt. Españara boluntarioak joatea dala-ta, Inglaterra'k artu dauan jokaerea etxake atsegin.

Inglaterak, España armarik eroatea gebendu egin dautse bere ontziai; alabaña, Italia'k eta Alemania'k bestera jokatu dabe, eta moduetan egin bere.

Orezkero, ingeles jokaera ori españar paxista asaldarien alderakoa ta onerakoa izan da.

Jokaera ori, erbestietan, dan giñoan azalduko dabe. Gudari gogozkoak joatea galazitea, paxisten matxiñadea ontzat artutea dala etsiko dabe, eta Gobernu paxistei ezetzik ez esatea.

Olantxe ezpa'da, beste bide bat artutea, noraezeko da. Alemania'k eta Italia'k boluntarioak bialduten diarduen artean, Inglatera'k bere, beste orenbeste egin bear dau. Azke utzi gizonak, galerazi gabe.



Zaratamo'n, Bilbao'tik urlan aurkitzen dan uritxuban, umientzako gexo etxia jari dau Soroskide Zaingua'k.

Osorio y Gallardo'ren idazlanak

"Nai-ta-ez, bizitzako arlo eta agindaritza aulkietan, langilleak toki izango dabe"

Madrid.—Atzoko zenbakian, "Ahora,"'k, España'ren Belgika'ko ordezkari Ossorio y Gallardo'ren idazlana argitaldu eban.

Eri batzuetan ez dabe ulertu nai azkatasun erikoia zer danentz—diño. Komunismoatzaz iritzi daben jakitea be, bai, jakingaria. Rusia'koaz ez ostera, matxinadea irabazi zanean goraberai jaraitu beara izan eben-ta. ¿Zer esan daikie Rusia'z, legedi azkezale ta parlamentukoia ontzat artu bari diralarik erusitarok?

Komunismo jatora Rusia'n ezartea baño, gatxagoa litzake España'n ezartea, askozaz be. Katolikoak ez dabe nai, orobat, erkalzaleak, sindicalistak eta anarkista geyentsuak, eta komunistak bere ez. Bai, olantxe ta. Ez ete dogu esango?

Komunistak zentzundun oso agertu yakuz. España'ren gaurko egoereaz konturatu egin dira. Erepublika erizale paxista bakoa nayago dabe komunismo osoa baño. Guztiak dakie ori, eta orezkero, ¿zer dala-ta komunismoa ager-azi mamu ikaragaria bai'litzan?

Zioa, argi dogu. Gauza orela azaldu nai dabenak, gizarteko zuzenaren eskari bidezko txikienari, komunismoa eretxi oi dautze, euren sakelari ukutu ezkero.

Nortzuk dira orela bildurtuten diranok? Orain, komunismoaz ikaratzen dira; len, sozialismoa gizentzen joiala-ta, gora-goraka ebiltzan; katolikoak euren gizarte-irakaspidea azaltzean, lari ziran; españar Erepublika ezari baritan gizarte-zuzenaren aldeko aginduak zirala-ta, estu ikusi genduzan.

Are geyago. Gizarte auziari buruz Aita Doneak ots egiñaz, enziklikak azaldutean, siñausle, "hereje" etsi, eta bide onera zedin Jaungoikoa'ri otoika ari ziranak eurek berberak ditugu.

Guztiak dira bardiñak, lengo lengoak, eta ondo ezagututen ditugu. Gizon artean malak, kastak nai zituen, euren egoera ta agindumenak uritu nai ez; bai, ordea, geitu, ugaritu, andiagotu, ankera, agindumen, ondasun, goimala jatortasuna. Langileak birindu guraz sortu izan dabe, orexek, gera biotzgabe auxe.

Ora or, komunismoa zer dan, andiki dongaen eretxiz. Atzerian, izugarian gogorago ta odoltsuago azaldu dabe, eta lenengotan Inglatera'n batzu-batzui ziñistu eragin be bai, ta euren alde zerbait lortu.

Baña utzi begioe arlo ori. Komunismoa mamu izugari lez agertutea, alpereko lan eta zeregin baragari baño ez dabe, onezkero. Ez Inglatera'ri, ez besteri, ez dautse olako guzurik sakatuko, ta iñor lanori jari ordez, pareka piñiko dabe. Olantxe egiñaz euren erailketa ta krimen ikaragariak eztali al ba'litue!

Egin dana auxe bai. Guda ori amaitu daitenean, gobernu-edeak nornairen esku egon, nai katoliko ala erepublikanu, sozialista ala komunista, langilien asmoak, iñok ez iñok, ezin izango ditu betu ez baztartu. Eta nai-ta-ez bizitzako arlo eta agindaritza-aulkietan, langileak toki izango dabe.



IZARRAK

¡Motelak, goi aldia izaratua zeok!

Len gabaz bakarik genun izarak ikusteko zoria eta beroien kiñuai begira liluraturik egon oi giñan. Orain noiz nai ikusten dira izarak; egunez gabaz baño geigo. Kalera irtetzea aski degu izar dizdiratsuak ikusiz begiak aspertzeko.

Izan ere...! Len ile kixkur polita erakutsi eziñik kaskutsik ikusten genitun gizasemezko asko orain burua txapelaz estalita azaltzen zaizkigu. ¡Izarak erakutsi bear bai dira!

¡Aro ez badago ba gure mutila bere izar dizdiratsuakin!

Gudak berekin dituan eranskin ezeskarietako bat auxe degu: gure mutil gazte jator asko "capitan" edo "comandante" izaren dizdairaz zoratu ta arotu egin dirala. "Militar" kutsu geiegi artu dutela.

Gudari taldeak bear duten batasuna ta indara alik aundiena izan dedin buru bat edo geigo bear beareko dala badakigu. Baña agintaritza ori "militar" aroputzen antzera azaltze ori etzaigu egoki. Eriko gudari arteko adiskidetasuna eten eta pitzatuko ote duan bildur izateko bai da.

Eta izar oien dizdaira burukaldietakoak piztua balitz, or nunbait. izar olek guda-oñetako ekiñaldi bulartsuetan irabaziak balira, or nunbait.

Gudaletxeko sukaldeak ornitu beste lanik ez dutenak ere gutxienaz "comandante" izarak agiri dituala ikusiko dezu txaiderik txalde denbora bateko "marquesitoak" baño dotoreago.

¡Motelak, goi aldia izaratua zeok!

¡Eta izarak, bai merke!

A-Bi.

Euzkotar gudariak

Ama Euzko-eria, neure eri maitea,
Ze zorion aundia zugaz ibiltzea!
Zeugaz Ama, zeugaz pozkidaz betea
Dabil euzkotar biotz euzkeldun gastea.

Urun Auñemendiak... ta euzkaldun (basoak,
Urun aiton-amonak... urun gurasoak...
Urun anaiak, urun atsegin osoak,
Urun oso urun geure pozkida gozoak.

Amagandik urun ta etsaien aurean
Indartsu gogor mendi galurean,
Ara an elkaren aurka guda gogorean
Guda bizi kentzale sutzu ta asarean.

¡O zenbat etsai jausi diran lurera
Odolez gorriturik alkaren gañera,
¡O zenbat doazen il añik jaustera
Gure gudari euzkotar gogoren aurera.

¡Ori bai dala indara! Ta ori adorea!
Ori da etsai guztiak birindu gurea,
Ikusirik mutilon indar ta ardurea
Dantzaut azaba euzkaldun zaren itxu- (rea.

ANDONEGI'TAR KUIREKA.

Ikertaldiei erantzuten

Rio Janeiro.—Vargas lendakariak Roosevelt'ek egin eutson ikertaldiari datoren Epalean erantzungo dautso.

Buenos Aires.—Justo lendakariak Lateri Batuetara juango dala adierazo dabe agintariak.

Katolikoak estu eta larri

Alemania'n orañarte lez, aurretik darabillez

Estadua jaungoikatu bearrez

Roma.—Alemania'ko iru janzkordun edo kardenal, eta iru obispo izan dira, Batikano'n estadu aretako katolikoen egoera laria azalduaz.

Zeaztasun eta laregikeriak, nazitaren jokaera biurriak jakitean, zotin andiak egin dabez Batikano'n.

Nazitarekin Eleizeak dituan artu-emonak beti be alkar ulerti eziñekoak diranez, oingoan estuago eta eternurenago dira. Erbesteko arazuen ardurea duan ministroaz goraberarik eta izketaldirik naiko ditu aspaldion Berlin'go eleiz-agintaritzeak.

Auzi onetzaz, berengi-berengiz, Gabon'eko itzaldian jardun eban Aita Deunak, eta egoerea argi azaldu be bai. Bañan, aleman Gobernuak gebendu egin eban itzaldi ori Alemania'ko iratetxetatik edatuterik.

Itunben edo konkordatua beteteko eskatu dautsa Eroma'k Alemania'ri. Batikano'k ez dau ezetariko alegiñik egin barik utzi, baña oei au, azkenengo itza dalakoa etsi dabe atzeritar aituak.



Zaratamo'n umientzako geriau dagoen gexo-etxeko areto nagusia.

EDESTIA IRAKASLE

¡Bismarck...!

Nork ukatu leikio gaurkotasunik orain dakarkidan gaiari? Doisteria izan da aspaldiko azken-urte oneitan Europa'ko lateñen arteko naspil eta asaferik bizienak biztu izan dauzana. Gudara daroaz biotzak gainbera ango gizonak; ezin dira bakean bizi. Asafea ta bufuka nai dabe. Oraingoa ej-da, ordea, Doisteri'ko lateri-gizonen artean oartzen dogun gudara-beafa? Noiztik datorkie burukatubear ori?

Bismarck! Azpiratzalea, oinperatzalea, biotza-gogora, arkefa, burdiñezko eskuduna... Zenbat gauza ez doguz entzun lateri-gizon ospatsu onetzaz! Inork ukatu ezin leikiona be adimen -indafa ba-da. Prusia'ren nagutasunpean, Doisteria'ren batasuna egin ebanez geroztik, arek erakutsitako ibilbidetik okertu barik doazala esan geinke ango lateri-gizonik gipatuenak.

Ara 1821'gafen urtean, Elba-ugarteau, azken-arnasa ajzatu, gizadiak izan daun gudaribururik ospatsuenak. Mutil gaztetxua zan Bismarck, Napoleon'en argi-izafa itxasondoan itzali zan garaian. Ez eben, ofatio, atsedenaldi luzerik izan Europa'ko laterfiak. Ordea, Doistefi'ko agintedideak eskuratu ebazan garaian, ez yakon Bismarck'eri Prantze-aldetik Bonaparte lako gizon zeatza ta azkafa buruztatu. Galtzairuzko lateri-gizon aren eskupean, zipote baten antzera ibili zan Napoleon irugafena. Gizon txepela ta kemenik bakoa... Ara zergatik agindu eban Bismarck'ek luzaroan Europa'n jaun eta jabe. Bonaparte'ren ariko gizonak izan ba'leuz aufez-aufe Doisteri'ko lateri-gizon ainatuak, ez Moltke'k eta ez Bismarck'ek berak, ez ebezan ausiko guda salean, nik uste. Prantze'ko gudari-taldeak.

Baña, datorkigun legez artu beaf do. gu edestia; ez beste gizon batzukaz izango zitakian legez. Beraz, Bismarck'eri buruz be, arek egin ebana ta arek Doistefia'ri aizatu eutson tankera ta izaera aztertu beaf doguz. Gizon aren irudia izango baita luzaroan Alemania'ko lateri-gizonen zuzenbide. Ikusi dalgun, ba, zelakoa izan zan gizon a.

Aginte-bidera igo baizan laster, gudarozteak indartu ta zeaztutzea izan zan bere egiterik lafiena. Au zala-ta, efi-aldunakin bufukan ibili zan luzaroan aufez-aufe. Azkenerako, ordea, gizon aren adimen - indarpean burua makurtu bear izan eben efi-aldunak.

Austria'ri ekin eutson ufengoz. Europa'ren biotzean lateri asko bizi ziran garai atan burujaube. Ofatio, alde batetik Austria'k eta bestaldetik Prusia'k lateri ofeik menperatzeko alegifiik aundienak egiezan. Au zala-ta, gudara jo eben lateri biak. Prusia urten zan garaile; Bismarck izan zan irabazle. Sadowa izan zan Prusia'ren garaitoki; eta, afezkero, bera izan zan Ipaf-Alemani'ko laterifitxoen artean nagusi.

Bien bitartean, ezin-ezean, nagi ta zoro egoan Prantze'n Napoleon irugafena. Itz oneixek erakutsiko dauskue ondoen lateri-gizon onen iznera txepela: "Inertia, sapientia". Baña latefien -arteko bufubak irabazteko, nagia ta maltzurkeria baño geiago bear da. Nagia baño askozaz geiago beaf zan Bismarck zan lako gizonaren ekifia ta ibiliak lotu ta esiratzeko.

Ofatio, noizbait, artu eban Prantze'k erabaki zeatza: beiu izan ordea. Gañera, utsegiterik aundienetako egin eban; ukondoa sartu España'ko efege -auzia zala-ta, Doisteria'kin aufezka, gudara jo eban Prantze'k. Garai onean! Orixe nai eban Bismarck'ek. Bonaparte'ren garaikoak lakoak al-ziran, ba, orduko Prantze'ko gudari - taldeak? Ugalde indartsua legez oldartu ziran Doisteri'tafak Prantzi'ko mugetara. Baita esazki gudea irabazi be. Zelan ez?

Gaurko egunean nazifaren agintepean dagiezan indarkeriak ikusita, zearo aftituta dabiltzanak ikusi begie noiztik datorkien Doisteri'ko agindarjai indarkerira-beafa ta beste guztiak su ta gaf azoiratu-nala. Zelan esan ez zorigaiztoko lateri ofen zoria dala aspaldi onetan ankerkerira, indarkerira ta ifundiko izugafikeri guztietara jo beafa? Demofiozko zoria! Ara zelan jokatu ziran doistafak 1870'gafeneko gudaketaldian pantzetafen aurka.

Erdiragafiak izan ziran guda aretan doistafak egin ebezan basatikerjak. Edeslari ospatsu batek difioanez, napur gaizkileak bai'lira, jokatu ziran.

Ara zelan idazlen daun Weckede idazleak guda aretzaz: "Gizadi osoa ikara jaufitan jartzeko lafngoak ba -dira ikusi dodazan basatikeriak. Bein bere gudariai itza zuzendu eutsen egun batean, ara zelan mintzatu vaken Bismarck: Gudea lenbailen irabazi nai badozue, ez zuen arerioakin txantxetan ibili. Zenbat-eta efi geiago sutu; zenbat-eta gudari geiago aiztoz erdibikatu; zenbat eta urkatu geiago mendi -zeaf aurkarjei erakutsi, ainbat azkafago amaituko dozue gudea. Txakuf amofatuak baño areago gofotatu bear dozuez pantzetafak".

Beste egun batean, bere gudariak bosteun pantzetaf atxilotu aurkeztu eutsoezalako, biziro asafatu zan eta esan eutsen ja zergatik ez eutsoezan aurkeztu gorpu iiak.

Beraz aufelari bikañak izan dabez Doisteria'n basatikeri ta ankerkeri bideetan gaurko nazifafak.

BARENSORO.

"Euzko guda-oñetan Kanpantzar'en"

Mendi tontofan bakafik nago
Ortzeko zabal azpijan,
Edonor baño edeftuago
Eguzkijaren printzetan.

Txori bat dabil buru gañetik
Afano-zafa deitzona,
Mendi-oñera mendi atatik
Aran luzera duana.

An ufiñien argi ikusten da
Itxaso urdin-zabala;
Bertatik orain aringa gan da
Ixontzi -def-apafia.

Neure aufian daukat ifuri
Zaratatsuba gogoki;
Angoxe ura zenbatzu neuri
Atsegin zatan nok daki...!

Emen ostotsak entzuten dira
Argi-argiro benetan.
Bere dun-duna ija-ija berdifia
Entzuten ei-da ildeyan.

Axe apur bat dabil beyetan,
Pagadijetan biguna:
Ni-aldamenan eta goyetan
Txistuba baxen ariña.

Ainbatzu bela dabil bertantxe
Luf gustija baita imintzen...
Ufetxindofak indaftsu aintxe
Dabiltz pozkiro abesten.

Ajtz txiki baten tontofetxuban
Basatxonua agiri da,
Eta beraren goiko aldian
Kuale-otsa itxali da.

Ikusi zelan orain bertara
Duazen notin azkuak:
Lutzia Deuna basatxonora
Duaz entzuten jaupeak.

Aguf Kanpantzaf, aguf mendija,
Udalaitz eta basua:
Basatxonora entzuten jaupak
Ni be bertara ba-nua.

Orain gudari zeuri itz batzubek
Gura-dautzubaz nik esan.
Ango jaule-otz eztitsubak ba
Dozuzenjan entzuten.

Jaungoikua'ri gogua jazo
Dagijozula bijotzez,
Eta gudarik bein be ez geyago
Eztaigun eukin, iñoz be ez.

GOXABARAN
Elorio'tik.

Jakingarrijak

Gaur geyen ikusten dogun afafia, "papardua" dogu. "Papardua" afain ugarija be, bada, eta ezkefak berari askoren nafyak beteten dauz afain jaufi ufi aldi onetan. "Papardua" era askotara jateko ipinten dan afafia, be, bada. Bardin saltzan, nai egosita, baña kifkilduta eta laban, be. Baña gaur asko dira "papardiian" "secretua" eztakijenak. Ara: "papardua" geyenak, azala kenduta ipinten dabe, eta au bere azalari dautsen iguiñak edo eragiten dautse. Baña efatuta dira.

"Paparduak" bere goxotasuna eta baña mamin gustija bere azalian dau. ¡Egixue "aprobia"! eta ikusiko dozube. "Paparduak" bere azalian dauka koipe eta guna.

"Paparduari" bere azala kentzen badautzazu bere gunik erdija kenduten dautzazu. "Papardua" kifkildu egixu azal eta gusti, bein kifkilduta berez biarba jausiko jaka jaten zagozan bitartian. Bardin egosi eta saltzaratu, bere azal da gusti, eta ikusiko dozu, iñoizkorik afafik gozuena jango dozu.

"Paparduari" jaterako ez egiozu iñoiz be, bere azalik kendu.

OGOÑOPE.

Bilbao'ko izparringijak diñuena

"Euzkadi"

"El Arca de la Alianza y el Cerro de los Angeles" ixenpurututen dau Beotegi'taf Mikel idazle argijak bere idazlana.

Eta "Cerro de los Angeles" guda-tokijan paxiotafak artu ixan daben zigofa azalduteko, israeldafak eta filisteotafak ixan eben gudakearen edestijari oratuten dautsa.

Eta aldi aretako isfaeldafak jazo ixan yakena agertuteko, Lege-Zafeko idaztitik aftutako lefo oneik beridazten dauz:

"Egun aretan, isfaeldafai gudea egiteko, filisteotafak alkaftutia jazo zan; Isfael be gertau zan, eta geruago "Soroi-Afija" (Piedra de Socorro) defuten eutsoen afijare.. onduan batu ziran. Bifaftian, filisteotafak, euren aldetik, Afec'eraño auferatu ziran, eta an Isfael'i, gudakea aufkeztu eutsoen. Gudakea asi zanian, Isfael'ek, filisteotafai, bizkafa erakutsi eutsen. Eta oneik, isfaeldafai, bufukaldi aretan, lau mila gixon-inguru erail eutsezan.

Gudaroste nagosija guda-oñeratu zanian, baña, Isfael'go agureak, esan eben: "¿Zelan ixan leieke gu, gauf, Goikua'k filisteotafen menpe betutia? Jauna'ren Alkaftasun-Kutxea Silo'tik ona ekafi daigun, geure erdijan jafijaz areyuen eskutik gaizkatu gadixantzat." Efija Silo'ra lidaldu eben, ba, gongotzonen gofik daguan Gudarostien Alkaftasun-Kutxea andik ekafteko. Eta efijak bai ekafi be. Ofni ta Fineés Heli jaupari Nagosija'ren seme bijak lagundu eutsoen Jauna'ren Alkaftasun-Kutxea'ri. Eta Jauna'ren Alkaftasun-Kutxea guda-tokiratu zanian, Isfael gustijak pozezko oyubak axeratu ebazan. Oyu arei, filisteotafak, gudakeaz erantzun eutsen, eta Isfael bafiro be betuta geratu zan. Eta al ixan eben gustijak, euren etxietara iges-egin eben, Isfaeldafen zoritxafa, andijetan be andija ixan zan, 30.000 oñezko guda-tokijan ilda geratu ziran -eta.

Eta Jauna'ren Kutxea, filisteotafak aftu eben, baita Ofni ta Fineés Heli Jaupari Nagosijaren seme bijak be."

Jauna'ren Kutxea guda-tokiratutiaz euren oben eta gaiztakeri gustijetatik garbiuta geratuko zirala uste ixan eben aldi aretako judafai, oraingo paxiotafen antza aftu legikijuela esan leike. Oneik be, ba, Josu-Kisto'ren gurutza deunaren irudija erakutsi-ezkero, dagijezan erailketa, napufeta eta birau gustijetatik garbiuta geratuko dirala-edo uste dabela dirudi.

Baña ez. Areik, Alkaftasun-Kutxeaz idoro eben zigofa, oneik, "Cerro de los Angeles"en idoro ixan dabe-ta.

"Tierra Vasca"

"Cosas nuestras", geure gauzak, idazten dau lenengo lekuban izpafingi onek. Eta jafayan, beste ixenpuru au irakuften dogu: "Los vascos ante Europa".

Euzkotafak Europa'ren aufez-aufe agertute onegaz, geuk doguzan areyo ugarijak afatuten dauskuz. Euzko-abertzaliok doguzan areyuak asko be asko dirala diño. Eta areyo oneik, Queipo, Salamanca, Burgos, Coruña ta emparauko paxiotafen jradotsetatik ganera, Italia'n be ba-dirala diño, baita Alemania, Portugal eta abaf be.

Areyo ofeik, bafiz, bildufgafijak ei-dira guzufa aufetik dabela euzkotafen ixen ona galduten dabiltzala-ta.

"La Gaceta del Norte"

Izpafingi onek Madrid'ko guda-oñetaratu diran paxiotafen gudari-muetatzaz idazten dau.

Alemandafak, italiafak, irlandafak, apirkafak, japondafak eta berein motatako gudarijak ei-dira, ba, paxiotafak Madrid'ko guda oñeratu ixan dabezanak.

Txinafak be eruan biaf ebezela, diño, benetako txino-egifiena paxiotafak dagijena dala-ta.

"El Noticiero Bilbaino"

Euzkadi'ko guda-oñetako izpa'ak damoskuz lenengo zefenda bijetan.

Paxiotafak, 14'tik 50'urterafiekuak guda -oñetaratuten ei-dabez.

Ondafoa ta Kuartango'tik efi-gixon bik iges-egin ei-dabe, paxiotafen gaiztokifiik efi-aldezliekanatuteko.

Suagalarijak Bergara'ri gogof oldaf'u ixan ei-dautsoe. Ubidea ta Otxandiano'ko guda-oñetatik be, Legutiano'ri, gogoftxu oldaftu ixan dautsoela diño, ta kalterik asko egin ixan dautsela.

"Euzkadi Roja"

Euzkadi'ko gixafiekerizaliak egunoroko izpafingija eguzkifiaratutia erabagi dabela -ta poztu egiten da. Langilien aldezko izpafingija egoki-egokija da. Euzkadi'n, baña, diño "Euzkadi Roja"k, auzijak ez dira Asturias eta Madrid'ekuak letz erabili biaf. Emen beste ixakera bat dabe, emen, Euzkadi'n, geure-ixakera berezija dogu-ta.

Gixafiekerizaliak, be, ofela ikusi dabe euren Batzaf Nagosijan, eta euren egunorokuan ez dabe aztuko langile ba-dira, euzkotafak be ba-dirala.

"El Liberal"

"La caza en la cuenca del Ebro" ixenpurututen dau onek bere lenengo idazlana.

Antxifiako karlatafen aldiko sasi-gudarijen aldija juan zala diño. Oraingo guda -izkiubak, ba, ixil-mixilka lapuf-antzo batetik ziri ta bestetik ziri dabiltzan sasi -gudarijak deuseztuteko, berbixikuak ei -dira.

Ori ta gusti be, baña, sasi-gudarijen egifiena ez ei-da amafu. Oraingo sasi-gudarijak, baña, beste era batekuak ei-dira: egazkin-bidez egiten diranak-eta.

Eta onetariko sasi-gudari bafitzat, Navamuel ixeneko bat agertuten dausku. Onek, ba, egun baten, "Tiburon" paxiotafen ixontzi lapufa aftu ei-eban, sasi-gudari-antzo egazkifietik oldaftuta aftu be-

'C. N. T."

Jo ta jo aufera diñardu beren asmuaz, langiliak be agifiari ixan biaf dirala-ta.

España'ko efkijetan langiliak Jaufiaritzetan saftu dirala-ta, Euzkadi'n zegafiik ez diran saftzen, ifianduten dau. Agintzarako ikasbiderik erabili ez ete-dabelako ete-dan-edo, diño.

Baste leku baten "Euzko-Langile"ri be ifiauntxubak-ifiaun egiten dautsz. Bera ez dala paxiotafa diñotso. Paxiotafa ixateko, diñogu guk, ez da biafekua izkiluz gure aufka ibilfia; izkiluz edo indafez euren gurarija lagizko Jaufiaritza'ri iruntsi-eragin gura dautsana, be, ba, paxiotafa da.

NASKALDIJA

GEXORIK

Gure adizkidia ta abertzale zintzua dan Bengoetxea'taf Gilelma "Txindufi" ospetsubaren emaztia ta alabea, gexorik aurkitzen dira, ta txaftotxu aurkitu be.

Goiko-Jauna efukituko al yake ain biafeko yaken osasuna eurekanduteko. Egin -bedi, ba, Jauna'ren gurea, donokijan lez, ludijan be.

⁂

Eskauriatza'taf Endika ta Azpeitia'taf Julene, "Afitokieta" euzkel-idazleme argijaren seme kutuna be, luzarotxu gexorik egonda obarantz egifen asita dagola esan dauskube. Oberatze-irpaf onek asko poztuten gauz. Osuan osatu dala jakitiak, baña, geyago poztuko gerdukez. Azkaf osatu, ba, mutil.

EUZKEL-EGUTEGIJA

Zornotza'ko "Jaungoiko-Zale" bazkunak, urteroko oiura edefari jafatubaz, aurten be, ormarako egutegija irafi dau, ta salgai imifii be bai.

Bizkai'ko euzkeldunon aftian ezaguna dogu egutegi au. Edesti-atal polifak ekafi oi-dauz; izkirimiri bafegafijak be bai, baita goizpafki ta beste jokingafi asko be.

1937'gafen urte oni yaokana, ikusi dogu. Edef-edefa da, irakufgafi-irakufgafija. Eta alan be, merke-merke salduten dabe: 0,70 eunen edo zentimuan. Edo argijago esanda, saspi txal...fian.

EDESTI DEUNA

Edesti Deuna deritxon idazti bafi au be, ikusi dogu. Zornotza'ko "Jaungoiko-Zale" bazkunak argifalduba da idatzi bafi au be.

Txukun irafita dago, irudi bedegafakaz apainduta. Euzkel-ikastolaetarako-ta, berebixiko idaztija da.

Ibafgutxi'taf Jon Gurutz jaupari agufgafijak idatzita dago. Eta euzkel-idazle jayo onek idazten dakijan lez, euzkera garbi ta ulefiefezian idatzifi egon be. Sanenufijari be begiratu dautsagu: 3 laufiekotan saltzen da.

"PAXIOTAFAK"

Efi-aldezlien lanari eragozpenak iminfen dabiltzan gustijei, "paxiotafak" esaten yake, baña efkaldafen burostunaz jantzifi ba'legoz be.

Benetako efi-aldezlien lanari eragozpena ezafien alegifiduten danari "paxiotafen" ixenaz defutia, ondo da ixan be, efijaz eztagona, efijaren aufka dago-ta.

⁂

Efi-aldezlien kaltezko eragozpenak softuten dabiltzenai "paxiotaf" ixena emoten ba-yake, euzkera-aldez dabiltzanaj eragozpenak bideratuten diñardubenai, ¿zer defuko yake?... Ofei, be, "paxiotafak" defu biafko, Euzkadi ta euzkerearen benetako areyuak, "paxiotafak" dira-ta.

⁂

Eta euzkerea buruz begiratuta, "paxiotaf" ixena irabazten dabenak, ¿nortzuk dira?... Askotxu, tamalez.

Orain idazten dan euzkerea ulefkatxa dala esanaz euzkel-izpafingirik irakufi gura eztabenak, euzkera-kaltez eragozpenak bilatzen dabezenak dira. Batzuk, bizkayeraz idatzifia dagualako eta beste batzuk, gipuzkeraz dagualako euzkerazko idaztijak erosi gura ezta dabiltzanak be, euzkerearen areyuak dira. Basefiafai euzkeraz irakufiazoko ya-yake, onako edo alako euzkerea erabili biaf dala-ta, argifaltzen diran euzkel-irakufgai mueta gustijei akatzak bilatzen iñardutia be, euzkereari eragozpenak bideratuten ibilfia da.

⁂

Guro guraso zafak esan ol-ebena, atxuflari txafentzat, atxuf onik ezta egoten. Ezta atxuflari onentzat, atxuf txafik be. Gure guraso ta efkaba zafai zinistu gura ba-dautsegube, ba, benetako euzkeltzale zintzuarentzat be, eztago euzkera txafik, ezta ulefkatxik be. Eta ordez, euzkeltzale ustelarentzat, euzkera onik be eztago. Ulefiefezik, bafiz gitxijago. Beraz, euzkerea buruz onako eragozpenak idoroten dabiltzanak be, "paxiotafak" dira.

"EGUNA"

Ona emen gure egunerokuaren ixena. Egunoroko au, geure elian, geure abefi -izkuntza jatofian idatzifia argifaitzen da, bizkayeraz eta gipuzkeraz idatzifia agertu be.

Euzkeltzale batzuk irakufi ...be, ta euren eretxi-meretxija agertu be bai. Onein aftian bat baño geyago ixan dira, EGUNA txalotu ixan dabenak. EGUNA txalotu ixan dabenak, baña, euzkerea beste izkuntza gustijen gaiztik maite dabenak ixan dira. Euzkereari, geure-geuria dalako edo, ezeiafiko akatzik idoro barik, begi -zabal begiratuten dautsoenak. Onixek ixan dira EGUNA txalotu ixan dabenak, eta egunoro eskubetan aftuta mafasmez irakufien dabenak.

⁂

EGUNA'ri bekoko ilurri imifi ixan dautsoenak be ixan dira, baña. Oneik, euren begikua eztan edozeri akatzak bilatzen aspeftuten eztiranoik, EGUNA'ri billa'u dautsoez. Eta EGUNA'ren ordez "Eguzkija" euzkeraz irafita atarako ba'litz be, arixeri be alaitzak idoroko leuskijuez. ¿Zetarako?... Atxaki-matxakijok aufetik agertuta euzkerazko irakufgai mueta gustijei iges-egiteko. Onejk ekatz-baltzaliok be, euzkereraren agiriko areyuak dira: "paxiotafak".

Lurra be gaxotuten da



Aufeko idazki baten argitu gendun tramankulu ederak lanak eraz egite koak dabezala gaurko lugiñak; lugin batzubentzako izan leikez egokijak, bada, gaurko lugiñak, safitan galduten dabez euren solo-lurak soloetan lurak aro txafagaz eta bat-batera lan danak egin nai ixatiagaz.

Solo-lurak bere, gauza gustijen lez nai-abe at-edena, bada atsedenik ez' daukan solo lurak nai-ta bota simaura eta beste batzubek, ez'dau emongo biafdan besteko afnarirlk, gaxorik aur kituten dalako.

Solo-lurak ondo ibili ta biaf dan beste afnari berari aterateko, nai-dau atsedena eta aro onian eraldutia.

Gauza efukafija izaten da, benetan lugin txiro batentzako bere solo gustijak eraln eta euren afnarija aftu ez' egitia, eta au igaroten dan gustijan ez'da izaten eguraldi ta luf txafaren erua. Safitan utz egiten dabe geure lugiñak euren golda edo tramankulu ederakaz euren lanak beingo baten amafu eta beste lantegi batera urtetako azke egon-nai ixatiagatik, baña ori egiten daben lugiñak, tamalez zafitan egingo dau alperik bere soloan egiten daben lana, bertan afnaririk aftu barik geratuko dalako, eta dana nai-dabenak, dana galduten dabelako.

¿Zeinbat irabaziko dau orek solo-lan gustijak egun bat edo bijan —nai-ta lurak aro txafa euki— etondu ta lau edo bost laufieko irabasten bere etxetik uftetan daben lugiñak? Ori egiten daben lugiñari ¿asko lotuko ete jako uftiaren azkenian bere sakel-on doan?

Sendi batek berak biaf daben beste solo-luf euki eta len esan dogun lez solo-lanak egin eta beste lantegi batera doyan lugiñak, neure ustez ez'dau ondo egiten, ez bakafik erain daben uftian arnaririk aftuko ez'dabelako, baña era ofetan solo-lufak erabili ezkero gaxoa saftuten yokolako urte askorako.

Lugin batek bere solo lufak ondo erabili eta euretan biaf dan beste afnari aftu nai ba'dau, etxetik alde egin da zafitan ez'dau egon biaf.

Lugiñak solora lanian bere abere ta tramankulu gustijakaz juan afen, soloan lura bigun edo leof dagola uste ba'dau, aftu bere abere-ta tramankulu gustijak eta biuftu biaf dau etxera, bere solo-lufari ufte askotarako gaxoa ezafi na-ez'badau.

Euzko-lugiñak, ondo esan dayogun solo-lufai eta matatu daiguzan, eurok emoten daben afnarijagaz ludiko notin gustijak bixi biaf dabe-ta.

TXIRI.

Paxtel-apurrak

Agirre! Agirre! Agirre! Zer egin dezu...?

Radio befi bat entzun det bart. Gabero bezela, zenbaki batetik bestera nabilela arkitu det, Keipo kertenaren astakeriak entzun ondoren eresi pixkaten egafi izanik atzegintxoenen bila gabiltzala, belafiratu zaizkigu itz oek: "Agife (iru bider), ¿qué has hecho?... Has perdido a tu país."

Ondoren entzun degunez, "Radio Nacional Salamanca" degu ifat befi au. Moscu, Berlin eta onenetakoak bezin indaftsua omen da, ludiko edozein bastefetik aditu leikena. Ala baldin bada, anei eskef Salamanca'ko jaun ospatsuok.

Astakeri pranko bota dute beintzat Bilbao'ko Gran Vía'n Lenin en argazki aundi bat omen dago; "Arsenal"ian befiz "izki" bukaeradun beste efusitaf bat, et oek omen dira, abeftzaliak iñortxore ez, eta anarkista ta komunistak nagusi diranen ezaugafi onenak. Eleizako agintariak nun dauden, galdetzen dute, abeftzale euskaldunak katoliko bezela zigoftu gabe, je de gaizto ofekin bat egiñik egon da. Bilbao'ko alkaf il beafa, ango gose eta bizi eziña...

Zertako jafaltu, irakufle? Zeofek iñok baño obeto ezafiko bai dizkiotzu buru gabeko gezuf eta naste oei, ondorengo iritziak. Alare ez det bukatu ez bai dizut oraindik aundiena esan. Astekeri guztien ondoren "spiker" edo dala! , ofek eus' ! -abesti bat dijoala eta:

Zoriona...
... ...
ordutik ona
otseña zera
fabia dozu
España!

alajañetan. Es sanisteko erakoa dala? Ezin ukatu, bañan ez neronek argi ta garbi entzun detala ere, "Radio Nacional"ek aginduta. Ara zergaitik eskefi-sutsuenak ematen niskion berari. Zeñek esan beaf zigun paxisten bitaftez ludiari esango zitzaiola euske'dunak aske izan giñala España'pian erori giñan afte?

⁂

Atzo au bezela lenago gotzaiaren gezufezko idazkiak, euskera zapaldu nai izatia. "Gabino Arana" maixutzaz, emakume abeftzaleak espetxera, apaiz abeftzaleak eriotzara, abaf et-. abaf Ai, España España! Zeñen ufuti zauden! Neufiz ufe egongo zerate bañan... gure gogoak zeñen berdinge eta aldenduak.

Zuek ez dezute beiñe ezagutu ez euskalduna ez Euzkadi, ez dezuten ezagutzen eta ez dirudi beñe ezagutuko dezutenik ere. Eta zuek zerate jaun ta jabe izan nai dezutenak; ezagutzen ez dezuten abefi baten zuzentzale.

Zuentzat gurenda? Leku onian ziok. Guk, zuek paxista ta efeketeok ezagutzen zaituztegun bezin ongi, zuek, gu ezagutzea gaituzuenian etofi zindezke zerbait izan naian gure aftera. Bitaftean... ¡Utikan!

TXARANBEL

"Itxarkundia" saildikoen alaitasuna

¡Gora Euzkadi democrática! Gora bada.

Garbitu befiak dira aparifio azken -kondafak. Abesti baten ondoren bestea. Alaitasuna an-emen. Maikideak, afituta begira dagozkio oiu ori egifiaz sartu danari. ¡Gora ba fa!... merienda!

Ta ostera, sartu-befia, lengo deada faz: ¡Gora Euzkadi democrática!

—¿Zergatik oiu ori motel?

—Tira ba, esango dizuet. Gure lagun bat etofi zaiguk apaltzera. One txeri entzun zioat lenengo, ta egia esan, osoro bete zidak nere biotz-abertzalea. Biotzera sartu zaidak oiu ori. Geiago ez jaulkitzeko eran sartu ere. ¡Gora Euzkadi democrática! ...me ha "llenao" el corazón!... ¡Qué grito más "salao"!

Ta "suspirio" luze bat atera zitzaion.

¡A! Soraluzetafok... zuek, zuek.

⁂

Zaldi laisterketan oñezkoan gizkorapustuan eta... sokaz aberiak afapatzen da astoaren gibela efeta jaten gutxi emen bezelakoak. Itzlariak befiz... Ospatsuenak "Columna Jariyo" deritzaion taldekoak. ¡Badauka "Soñuk" naiko lan zarata ta soñuak ixiltzen!

"Columna Jariyo,,'ko tiratzaleak asko ta onak dira. Lengo batez gelditu gabe ari zan bat.

Oar egin zion agintari batek:

—¡Faxiozaleak bertan diralarik ufu tiegi ziaztik ire tiroak motel!

—Ez aldakizu ordea Mola etofi dala? ¡Ara bestea! Eta karlisten abesti zafak dionez, generalak mutiletatik ufuti ibiltzen dira.

—¿Zer ikusteko dik ofek?

—Gizona... "las balas perdidas matan a los generales".

Eta seriyo seriyo jafiaz, beste tiro bat bota zuan ufutira, beatzaz agifia ikutu ta zesalarik:

—¡Kontxo! Esta Mola me amola...

Perez Madrigal

BASURDA BATEK ANKA EGIN DAU

Gomutaten zara entzule arako Perez Madrigal edo "el interruptor automatico" basurdagaz...? Ba onek anka egin dabena paxisten izpafingi batek agertu dau.

Perez Madrigal oferi ainbat ixen -orde ezafi gura ixan yakez, eta danak gitxi ixan dira. Iñok ezin igafi eutsan iñoiz zein abendatakoa zan. Basurda ixena ezafi eutsen, baña basurdia baño txafija obeto yatorkon. Egun baten ezkertaf eran agertuten zan. Beste baten ezkumataf, baita lerrouxista, eta edozelako margoz be. Azkenengo bere alderdija paxismua ixan dau. Bere bixitza gustiko ibilerak ezin eben ufunago jo eta paxismuan saftuta geratu zan.

Gauf paxistafen arteko izpafingijak negaf dagije. ¿Zer dala-ta...? Perez Madrigal'ek iru miloe laurleko sakeleratuta anka egin dauzelako. ¡Olarik...! Iru miloe laurleko! Danak difiardue bere efektasun eta min labanatzaz, baña oinguetan edefto labandu dituz, orixe bai. Eztabe besterik neresi kanalu ofeik ofetxelako egikunak baño. Euren alderdijan dabez zantar, eta judiko itxurabako tximiño gustijak. Euran alderdijan palasu, titiriteru eta ordiki gustijak. Orixe da kistaf alderdirik garbijena. Eta garbijenan aftjan zikifiena.

Perez Madrigal titiriteru antzian ondo ezaguna da. Bere Parlamentuko gangarkerijak gomuta erazoten dauskube, bere ixakeria. Danakaz ifi egin gura ixaten eban, baña bere lepotik edefto bafe egiten eben, bestiak. Gauf paxisten lepotik berak bafe egingo dau. Eta guk ez bafe ez negaf.

ORKONTON

Kontuz, barritsuak

Bayona (Euzkadi). — Gipuzkoa'ko guda-jaurjari paxisteak, agindu bat adirazi dau, gefako eta itxasoko arazo eta goraberak iñoftxuk bere ago-miñetan erabili ez dayazan.

Autu eta barjketak, zearo gebendu zital, eta nork zer esango dauan entzuteko, ixileko azeriak belafi erne ibili dabiz salatuteko gero.

Donostia'tik eldu yakuzan izpafetan, geyago be idoro dogu.

Agintarien neuri eta erabagiak, bete eta zaindu beafa dabe txistik egin barik, naita atsegin izan ez.

ATZERRIKO IZPARRAK

"Lengo asmo ta eritxiak, alde onetarako egoki eztiranak, bastartu biar dira eta gaurkoari dagokionez irakatsi, ta uste barriei amore emonaz, oraingo giroan jokatu biar da"; esan dau Roosevel'ek

Itali'n otz gogorrak eta Alemani'n edurte ugari. - Japondar militarrak lokatuta. - Hitler'en katolikoen aurkako politikeak ikara andia Vatikano'n. - Ingalandarren saspi guda-itxas-ontzi Gibraaltar'era. - Beste izparrak.

ALEMANIA GUDONTZI BAŔIAK EGITEN

Paris.—Europa'ko geŕatean Alemani'k izaniko indaŕ ta guda-gayak, baŕiren baŕi euki nai dauzala-ta, Hitler'en asmoak beteteko, eralben-agiriak gertu daukez.

Orañik orain, sumarino bi eta akorazau bi amaitu eta itxasoratu dabez, 27 mila toneladakoak.

Oroz ganera, 48 ontzi baŕi egitekotan gertu dagoz.

Orain urte bi, 1935'gaŕenean, Alemani eta England'ek egin eben itunbenaren kaltezko ez ei-da iñundik iñora be erabagi ori.

Bestalde, Rusia'k bere itxas-indaŕak ugaritu egin dituala-ta, beaŕeko dauala Alemania'ko bereak geituta, izpidetzat agertu dabe.

Eŕi onen asmoak guztiak, toki batera joten dabela, suma daroe orain politikoak. Len bere ori, argi baño argiago egoan, ostera.

JAPONDAŔ MILITAŔAK LOKATUTA

Tokio. — Legetxe edo Parlamentua laster edegiko du, eta egonezin eta urduritasun andia soma daroagu aldun eta eŕi-ordezkarien aŕtean.

Militar-dirutzea edo guda-txindiarekiko eztabaidak izugaŕiak izango dira beko suŕumuŕuak zabal dira.

Japondaŕ gudarosteak liburutxo bat argitaldu eta eŕian banandu dau. Eŕiaren bizitza ta bakearentzat aŕisku bidiak igazi dabezala azalduten dabe, eta inguruan ondamendirako bideak ikusten ditusla.

Japon'en egoereak aŕiskua dauala, eta erabagi ziuŕ eta alik lasteŕenak beaŕ dirala.

Rusia'k bere guda indaŕak geitu eta geituten diarduan aŕtean, mala eskaegoan lotutea kaltegaŕia oso izango dala Japon'entzat esan daroe. Rusiaren guda indaŕak asko ta ugariak dirala jaramon geyago ez egiteko, ta ardura zoliago ez aŕtzeko.

ITALI TA ALEMANI ETA RUSI TA FRANTZE

Roma.—España'ra geyago gudaririk joan ez dedin, erabakiak artzeko, gertu ei-dagoz Alemani ta Itali. España'ko mugu ta itxasertzean estaduen batzordeak 'pini zaintzen, eta kitu

Baldintza bi ezaŕiaz, ordea. Bata, España estaduaren luŕalde baten ez baten komunismorik ez dayela 'pini, eta ez control-batzordean Rusitaŕik aŕtu.

Bigaŕen. Etiopi, S. da N. (Lateŕi-batzatik) bialduteko.

France'k, España'gazko mugaetan mintzaleak ipinteko geŕtu dagola esan dau.

Itali ta Alemani'k, españaŕ itxasertzak jaboteko ontziak gertu ei leukiez.

Rusi, Europa'ko arazoetatik bota nai dabenez lateŕi paxistak, France'k bide artez ez dautse jaŕaituko, noski. Rusia aparte uzteaz ezta France konpornduko. Ordez, Rusia'z itunbena egin dau, guda-arazoaz.

Italia'k adirazi daunez, Etiopi'ren ordezkaria eztaduen batzaŕera ba'doa, bera ez ei-da joango.

BI HOLANDAŔ ITXAS-ONTZI ATXILOTU

Gibraltar.—Asaldariak, kaiatik lau milaz, i holandaŕ atxilotu ta Maŕuekotara eraman zituzten. Gatekoz betetа onuntz zetoŕen.

ZASPI INGALANDAŔ ITXASONTZI GIBRALTAR'ERA

Londres.—Atzeŕiko itxasontziak asaldarien erauntsirik izan ez dagien, Almirantazgoak zaspi itxasontziri Gibraltar'go Saŕera zaintzera joateko agindu die.

JAUNTXOKERIAREN AUŔKA

New York.—"Ford" lantegikoak opoŕan diraute. Opoŕa ogetalau ordu baŕu erabakiko dan itxaropena dago.

DORE ETA MICHELIN'EN IBILERAK

Paris.—Uŕutidazkin bi aŕtu dira, Paris-Tokio ibileria egiten dabezan egazkiñari Dore eta Michelin'ek bialdutakoak. Gauŕ goxeko seiretan igaro dabe Suez'ko Itxas-estu edo kanala. Eta abiadura aundijan igaro-be.

Amaikak eta ogeyan aŕtu dan uŕutidazki batek diño Dore eta Michelin'en egazkiña Basora'ren Ego-gol aldetik igaro dala gustiz zoriontsu.

LISBOA'N BONBAK

Lisboa.—Atzo aŕatsaldian España'ko Kontzularen etxian tanbada aundi bat entzun zan. Ikusi zanetik zutozki (bonba) bat ausi zan baŕuan, eta iñun diran kaltiak egin ebazan. Erijotzarik etzan ixan. Ordu berberan entzun zan beste zunbada ots aundi bat, Radio Club Portugez, iŕadotz etxian. Iŕadotz edo radio onek España'ko Erkalan aurkako lan aundijak egiten ixan dauz, eta uritik iru aneurkin kanpuan dago etxe ori. Baita beste zunbada batzuk entzun ziran Eŕi-Irakaskuntza'n edo Instruccion Publica ministerijuan. Etxe ortako gela batzuk ausiŕa geratu ziran. Txiñelak geratu barik dabiltzaz, gaizken jaubiak arakatuten. Baña gaitz da eurok egindakuak aurkituten ondondo gertuta eukelako.

ROOSEVELT'ENTZAT GORALBENAK

Londres. — Atzo Ipaŕ-Amerikatako Roosevelt lendakari jaunak egin ebazan azalpenak oso txalotuak ixan dira Londres'eko izpaŕkarijakandik.

Danak dira oso-osuan Ipaŕ-Amerikatako lendakari jaunaren esanekaz, eta orientzako goralbenak edonun entzuten dira.

ALVAREZ DEL VAYO'REN ITZAK

Paris'tik.—Ginebra'rako urten auŕetik España'ko ministru Alvarez del Vayo'taŕ Juli'k, izpaŕkarijekaz jardun aldi bat ixan eban. Onek esan eutzen, boltxebikitaŕen bidia, buru arin batzuk baño eztabela ikusten. España'ko gudatzako azalpen batzuk be egin eutsezan. Azkenengo auteskundiak emon ebela esan eban, erakutsirik argijena. Bakian, eta zorionian españaŕak bixi gura dabela agertu zan orduan.

Erkalak ez dabela elixiatzaz ez kistaŕtasunatzaz ezer txaŕik egin, eta ezta egiteko amesik be. Eta au egiztuko ei-da gudia garaitzaz amaitzen danian. Arerijuak eztau aldeztuten, kistaŕtasunik geitu eban. Ori euran atzipekuntzarik aundijena da. Oŕek euran txindijak zaintzeko edozer egiteko dira gertu. Oŕetarako dabez noru, aleman, italianu eta beste enparauak, Ejercito Nacional guzuŕ-ixenagaz.

ESPAÑA'REN ALDE

Oran. — Paxisten kontrako notin andia izan da, eta zazpi mila musulman erdu dira bertara.

Apirka aldean eŕi guztietako paxistak darabilezan gora-bera ta joan-etoŕiak eurentzat kaltegaŕi dirala azaldu dabe. Arabetaŕai Franco'k egin dautsen kalteaz, asaŕe dira eta olakorik geyago ezin daikiela laketu, esan daroe.

EZBEAŔA ITXASOAN

Kiel. — Salerosi ontzi bŕri lagundutera joyala, aleman geŕako ontzi bat urak aŕtzen asi eta ondora egin da.

Ogetabost lagun ito dirala diñoe.

ARAGIA UŔI

Santander.—Zaldiak ilteko arau baŕiak emon dabez auŕerantzerako, aragia uŕi dagola-ta.

Egin diran alegiñakin, uŕian ezta geyago okelarik palta izango.

RUSITAŔ ONTZIAK

Moscu.—Ipaŕ-itxasoan egingo ditue aurten, oi dabezan iñarkun eta maniobrak, eŕusitaŕ guda-ontziak.

Uŕengo ilaren zaspigaŕen asiko dira, Koshanoff buru dala. Baltiko eta Pazifico eŕusitaŕ gudontzietako nagusiak bere, auzioŕasi oŕetan ikuŕle bezela erduko dira.

ITALIA'N OTZ ANDIA

Roma.—Adriatiko itxas-aldean egundoko otzak izan dira.

Apulia deritxan luŕaldean, metŕo bateko zingoan dago eduŕa, ta burdi ta beribilak, Baŕi uri ondoetan geldi lotu beaŕa izan dabe, ez atzera, ez auŕera.

Jakingaŕia da baŕi au, alde aretan iñoiz edo bein baño, ez da eduŕik izaten-ta.

Venecia bere eduŕ zuriz ŧearo eztalia egiri da, eta ikusgaŕia da daukan tankera berezia.

EDURTE ANDIAK ALEMANIA'N

Berlin.—Eduŕte mamiña egin dau azken egunetan, eta eragozpen ugari sortu eraman-ekaŕietan.

Uri nagosia eduŕez beterik dago, eta aurtengo neguko lenengoa dala, esan beaŕ.

Sorkaldeko Prusia'n, otz andia dago, eta gero ta areago atan bere. Beroneurkiñak agertzen dabenez, zeroz betik, amabi mala dira.

Sorkaldeko Alemani'tik datozan trenak, orduaz geroz belu datoŕz. Uri nagusian gasto aziak sortu dauz eduŕte onek, eta atzokoan, bederatzi mila markoren kaltea izan dau.

ALPEŔEKO ERASOAK

Gijon.—Biedes aldetik jo dabe gauŕ paxistak, eŕizaleak ernai ez egozalakoan. Bañan, bereala aŕtu eben erantzun egokia.

ROOSEVELT'EN ITZALDIA

Washington.—Agintaritza baŕiro aŕtutea dauala ta egingo eban itzaldia entzuteko lagun asko bildu zan Lendakaritza jauregiaren inguruan.

Itzaldia iŕatiz alde guztietara baŕeiatu eben.

Estaduen aŕteko auziaz ezeban berbarik aitatu. Eŕi baŕuko arazoak azteŕtu ebazan berbarik aitatu. Eŕi baŕuko arazoak azteŕtu ebazan, eta gizaŕteko zuzenaz len dituan asmoak azaldu eta adierazi.

Laŕegi daukanari zerbait kendu eta eratsi beaŕ yako, beaŕtsu ta ez eukiei apuŕtxo igon erazteko.

Lengo asmo ta eritziak aldi ontako egoki ez diranak basteŕtu egin beaŕ dira, eta gauŕkoari dagokionez, irakatsi eta uste baŕiai amore emonaz, oraingo giroan jokatu beaŕ ei-da.

Estadu guztietan aŕera ona izan dau euren lendakari Roosevelt jaunak, bere baŕiro-agiro daritza aŕtze ontan egin dauan itzaldi.

ETXE ALDAKETA

Berlin.—Jakin danez Hitler'ek bere etxia Barariaŕ alpietan ipiñiko dau.

"Fuhrer" entzat txalet baŕia egiten une batetik bestera asiko dira.

Eden'en itzaldia

Gudara bultzakada baten Inglaterra elitxake bakarrik geratuko

Hitler eta Mussolini'ri esan biar yake ingelesen eruapena amaitu dan ordua eldu dala

Londres.—Izpaŕingi guztiak Eden'en itzaldiari lotu dira.

Aurtengo urterako lateŕi artean arazo laŕiak izango dirala iragaŕi zuan lenengo Eden'ek. Gentza alde ere, baiña, zer tzeladarik ese izango dituala 1937'gnko. urte onek.

Lateŕi-arteko arazo-erabakitzeak Inglateŕa'ri leporatuko dion erantzupena aitatu ta Gobernuari zuzetzez jokatzeko eskatu ondoren, geure dugata-arlora sartu zan.

Oraindik ere badiraula gudateak, baiña guda nagusia sortuko ote danen aŕixkua gutxiagotu egin zala esan zuan. Erkalak oso-osorik izango dituala bere luŕaldeak eta, gudate-ondoren, berak nai duan eŕiketa edo "regimen" ezartzen ez duala eragozpenik izango.

Guda nagusia sortuko dala esaten du tenagaitik gezuŕez bizi dirala gaiñeratu zuan. Baiña, ezer gertatuko balitz, ingalandaŕak bakaŕik ez gerala jaikiko ziurtatzea asko da. Ez gera bakaŕik izango; izango ditugu lagunak ere.

Erkala asaldarien esku geldituko danik ezin lezake buruari eman. Edestiak diona egia ba-da, ez da oŕelakorik gertatuko.

Alamaniar eta italiar borondatezko gudariak dirala-ta, iritzi geien sorturiko auzia dala, baiña baita egokien aurka egin zaiona ere, jaŕaitu zuan.

Gobernu guztiak Frantziak artu dituan neuŕiak artu izan ba-lituzte, gertatu danik ez zala gertatuko, esan zuan ondoren.

Une ontan Mr. Grayagen alderdiak itza jaso egin dio:

—Frantziaren ontzat eman, eta... zergatik ez diozu ari jaŕaitu?

—Datoŕen astean elduko zirala Londres'era "borondatezko gudariai" buruz Alemania'k eta Italia'k emango dituzten erantzunak—jaŕaitu zuan Eden'ek.

"Batza..'ren aurka neuŕi gogoŕik artu zutela—esan zuan—, baiña "borondatezko" guztiak "batu" egiten zituztela egazkinlariak batez ere. Asteroko, eralguntzak ordainduta, 40 libra jasotzen dituzte eta luŕeratzen duten egazkin bakoitzeko 500 laurlekoko saria.

Greyagen'ek beŕiro ere:

—"Batzen" jardutzen zutenak Franco ren mende zeudel esatea bakaŕik palta zaitzu.

Ondoren, Laborista alderdiko burua itz egin zuan. Mr. Eden'en esanak ontzat eman zituan.

Balenzia'ko Gobernua bakaŕik zala legezkoa, jaŕaitu zuan.

Geroxeago, "Ingalateŕa'ren eroapenak ba-du bere neuŕia" Hitler eta Mussolini'ri esateko ordua eldu zala esanaz burutu zuan itzaldia.

"Aberri"ren oroiz

"Abeŕi" euskel-idazle auŕenetarikoa "fascista" delako eliztaŕ (?) oiek erail dute. Beŕi gaŕatza idazle eta mutrikuaŕentzat berezikl.

Berari opari bat eskeŕi nairik, idazle batzuei, elizkizun jai bat egitea erabaki dute, auxe bait-litzake, eta da, eskeŕi genezainkegun oparirik edeŕena!

Nik, azken ondakiña naizen onen, ondo derizkiot asmo edeŕ oieri, baita ere, nere laguntza pozik eskeintzen det, opari ori aundikiro eskeŕi dezaiogun "Abeŕi" zanari (G. B.).

"Abeŕi", ez gaituk aztuko. Otoi, irakuŕle, Gotzon zanaren gogo aldez. Betiko argiak argi dezala.

KALALDE.

Ander Done'ko gudaria.

Inglaterra'ri erantzuna

Españar ministruaren agiria

Balenzia. — Lateŕiko ministru Alvarez Vayo jaunak gogozko gudariak gudaratu ez daitezen neuŕiak aŕtzea dala-ta, eman dio bere erantzuna Inglateŕa'ri.

Alvarez Vayo'ren erantzunak Ingalandaŕen asmoak Franco'ren lagunak sortutakoak dirala, esaten du. Alemaniaŕ eta Italiaŕ asaldariak gudartzeko baiño ez dira asmo oŕek. Eta ortara iritxi baiño lenago, gure Gobernuak asmo guztiok luŕeratzeari ekingo dio. Eta oaŕ bertan bertan, Eŕkalak gentza-alde ba'dira edozein laguntza aŕtuko duala, gaiñeratzen du.

Ingalandaŕen asmo-agiria astertu ondoren, Eŕkal-Gobernuak, aitaturiko neuŕi-aŕtze ori ontzat emateko, azalpen onetxek egin ditut:

Lenengoa. Neuŕi-aŕtzea, danon aŕte ez ba'degu egiten, alpeŕikakoa da.

Bigaŕena. Eskuratu digun asmo-agirian, neuŕi-aŕtzetik ez da ziatz agertzen, eta ezin geinke, ori jakin gabe, ao betez baiezkoa eman.

Irugaŕena. Gudateak duan neuŕi-aŕtu-beaŕak ezin ontzat eman dezake ikuspide ori guda-oiñetara zabaldu, guda-lanerako kaltegaŕia litzake-ta.

Laugaŕena. Ikuspegi ori ez da aitatzen itxas-batteŕetarako. Eta bitaŕtean azpitik nai duten guzia saŕtu dagite.

Bosgaŕena. Asmo-agiri ortan asaldarien portugaldaŕ ta ostontzekoak ez aitatzeaz, aŕitu egin gera. Orain aŕte gudarako beaŕ zuten guztia ortik saŕtu ondoren, neuŕi-aŕtze guziak ere gutxiegi litzateke. Eta, ala ere, ez aitatzea...

Seigaŕena. Ikuspide edo kontrola mugatzea eskatzen legezko Eŕkal-Gobe[illegible] Eta "legezkoa" danez Eŕkala zai[illegible] beaŕ dan guzia ekaŕtzeko eskubidea du.

Zaspigaŕena. Ikuspide ori, gudatera etoŕi diran alemaniaŕ eta italiaŕ asaldariaren kontua eukitzeko izan beaŕ litzake geienbat. Buruzagi asaldariak, lateŕi guzien esanen gaiñetik saŕtu dituzten "gogozko"ai neuŕiak aŕtzeko.

Zortzigaŕena. Ikuspide oŕek saŕtu ta ateratzen diran itxasontzi guztiak zaindu beaŕko ditu izkilu-toki, Balcares, Canarias eta españaŕ eta prantzetaŕ Maŕuekoetara saŕtzen diran gudariak, guda-izkilu-saŕtzeak, eta abar.

Bederatzigaŕena. Agerpenok ez betetzeak, Eŕkala'ri edozein neuŕi-aŕtzeko eskubidea emango dio.

Oaŕ au, Gobernua'ren ordez, Alvarez Vayo ministruak izenpetzen du.

Atzoko eguna euzko zaingoetan

Espetxalduak ikusteko galerazo aurretik egozan ordu ta egunak jarraintzen dabe

Pentsu eta aziak dirala-ta agiri bat. - Itxasgixonentzako agindu jakingarria. - Beste gayak.

Lendakaritza

BAŔI GITXI

Basaldua idazkari jaunagaz izketaldia izan genduan atzo, eta izpaŕik ez ebala, adirazi euskun.

Ikeŕa dirik etzan izan, eta Gobernuko lendakariak lan eta lan jardun eban, arazo asko barutuaz.

Guda-oñetako izpaŕetzaz galdera egin geuntsanez, ordu aŕtan oindiño ezetariko albistarik ez ebala esan euskun.

IZKETALDIA

Basteŕetxea'taŕ Pantzeska, españaŕ legedi-epaikaritzako batzaŕkidea, Agiŕe jaunagana eldu zan, eta izketaldi luzea egin eben. Ordu bi giñoan jardun eben.

BURUKIDEAK EUZKADI'RANTZ

Auzi gaŕantzitsuak erabagiteko Valencia'ratu ziran Zaingoetako nagosiak, gauŕ elduko yakuz, iñoan Basaldua'k.

Oŕezkero, lengoan atzeratu zan jaurlaritzearen asteroko batzaŕa, barikuan edo larunbatean egingo dabe.

Sorospide zaingoa

EMOKUNAK

Idazkaritza berezian, besteatan izpaŕik ez egoan-ta, egunero lez, Zaingo onen laguntzalien emokunen izen eŕezkadea emon euskuen.

Atzo goizean bildu ziranak, 1.868,40 laurlekora eldu ziran.

Gintza zaingoa

IZPAŔIK EZ

Aznar jauna agurtu genduan eta albista galde asi gintzakozan.

Esku-aŕtean arazo asko ebazala erantzun euskun, bañan oraingoz ezer azalgaŕirik ez ebala.

Osasun-zaingoa

LANDOLEAK ALDATU

Jateko berezia beaŕ daben gaxoen goraberak daroiazan landolea, lekuz aldatu dabela adirazo euskun atzo artezkari nagusi Cordero jaunak, jendeak jakin dagian.

Orañaŕte, Basurto'ko Gexotegian, aolku-gelan egon da, eta aldatu dogun lekua, "Instituto Provincial de Higiene" etxea da, Diaz de Haro kalean, eta egokitasun eta ereztasun obez egiteaŕen aldatu dogu.

Orduak: goizeko bederatzi ta erdietatik amabiak aŕte.

Zuzentza ta Gogo-lantze zaingoa

ERKAL-ARERIOEN ONDASUNAK

"Euzkadi'ko Egunerokoa„'n, erkalaren arerioen ondasunetzazko agindu bat argitaldu zan Zaingo onena.

Ona emen muña.

Joan dan iralaren 11'gn. Bizkai'ko jauŕlari españaŕak emon eban agindu-aren arabera, españaŕ erkalaren kaltez jagi ala matxiñadeari lagundu eutsenen ondasunak, España'ko erkal-gobernuaren izenean ezaŕteko agindu zan.

Eta lotazilaren 16'gn. agindu ori goyan beyeztua izan zan.

Orain, baña, lagun eta baltzu oŕein ondasunen jabetza Euzkadi'n dagozan ondasunena, Euzkadi'ko Gobernuari dagokio.

Oŕezkero, aŕlo astun au zuzendu egin beaŕ, eta beraz, ondasun oŕek Españaŕ Gobernuaren izenean ezaŕitakoak. Euzkadi'ko Ogasuntza'ren izenean ipinteko agindu ten yake jaube-idazkoletako arduradunei.

Jaubetza-landolaetako zuzendari nagusiak agindu-ta beŕogeta zortzi ordu baŕu, aldakuntza oŕeik eginda egon beaŕko dira.

ESPETXERATUEN SENIDEAI

Kartzeletako zuzendari nagosiak auxe esan euskun.

Espetxeratuen senideak iakin begie, baŕiro bere, ikeŕtu leyezela atxilotuta daukezan senideak.

Noiz eta zelan ikeŕtu, ageŕaldiak gebendu genduzan baño lenago egitan zan lez, bardin bardin.

Erri-lanak zaingoa

AGEŔALDI UGARI, IZPAŔAK UŔI

Zaingo onetan atzo goizean saŕtu-urtena baño etzana, ba-ebilen. Urondo jaunaz aurkitu giñan eta izpaŕik ez ebela azaldu eban.

Ordezkari ta lagun asko izan ziran galdeak egiten eta zeregin batzuk erabagi guraz.

Izan ziranen aŕtean, Mundaka'ko udabaren batzoŕde bat, uri areri dagokiozan arazo gaŕantzitsu batzuk burutu nayaz.

Langintza zaingoan

LANDOLETAKO OGIPEKOEN BAZKUNAZ

Lengoan ageŕtu zan aginduaz mintzatu zan Toyos jauna, eta bazkuna ori ezereztu egin dauala aginduz, esan euskun.

Paxistaen sail guztiak olantxe ezereztu aŕte jaŕdungo dogu, iñoan, eta gogotsu, arean be.

Itxas-langintza ta aŕaintza

Agindu auxe zabaldu da:

"Ontzi-baŕuko lanak, agindua beteaz, ikuspidez aztertu ondoren, lanik beteizen ez duanak zigoŕ gogoŕa leporatuko dutela jakin-erazo nai degu. Zigoŕetariko txindiarekikoa izango da.

Oŕela bildutako txindiak bere elburua izango du eta elburu ori izentatzeko oaŕ onetxek ematen ditut:

Lenengoa.—Itxas-langintza ta Araintzako Aginduak auziaz, lanik betetzen ez dutenai kendutako txindia, Auŕe-ikus, Artu emon eta Languntza-Zaingoaren esku geldituko da eta "Itxas-langintzako Soros-Ekintza„'n gorde.

Bigaŕena.—Batutakoerdia, Montepto Maritimo Nacional'en 45 urtetik gorako itxas-gizonak dituzten zoŕak ordaintzeko ta Euzko itxas-gizonen Etxea'ko txindigoraberari laguntzeko izango da.

Bilbo'n 1937'gnko. urtaŕila'ko 19'ez.

Langintza'ko. Arduraduna -izenpetuta: Juan Toyos.

Langabekoen aldeko Landola Nagusia

Langabekoen aldeko Euzkadi'ko Landola ta Bazkun guziai auxe dasaiegu: Iru egun baŕu bialdu Landola Nagusi ontara, langabekoen izen-leŕokada, bakoitzak zein langintzan jardun izan duan izentatuaz, Jurados Mixtos'ek ontzat emandako banatasunez. Iru egun baŕu bialdu, zuzia erabakitzea lenbailen egin bear dana da-ta, Langintza Zaingoak Abendu'ko 24'gnez. agindu ere oŕelaxe egin

Cerro de los Angeles zaurituar

Madrid. — Cerro de los Angeles'en egin zan joaldian eŕepublikar gudari gitxi zaurituta geratu ziran. Nagusien artian Valverde komandantia eta Puente guda-ordezkaria egon ziran.

Valverde komandantia jausi zanian Puente'k artu eban agintaritzea, oŕetarako biarkunik ezeukan-aŕen, eta bera be zaurituta geratu zan.

Bitsuak ondo dagoz gexotegi baten.

Euzzo guda-oñetan

Itxasertzera izan giñan goizean goiz ezer baŕirik jasoten genduanentz, baña utsik, izpar barik itzuli giñan. Azkenengo Ondaŕu aldetik eldu danaz izketaldia egin genduan. Aren esanak, zenbaki onen beste atal baterako gertu doguz.

Uri gaxoa! Gizonezko guztiak dardar laŕiak dituzu paxista dongaen mende, zer egin ez dakiela. Emakume zintzoak, buru soil, kistartzakuen egitadu deunai esker. Eta zeure ume eŕubakuak, armaz josi ta beterik, gorotua ta amoŕuaren otsein biurtu gura dabez! Bañan, abeŕiaren seme zindoak elduko dira oindiño zugana.

Markiña ta Eibar aldean, bere gorabera esatekorik ez genduan soma.

Elgeta'n, artileriak ederki jardun eban. Bergara gain tiro edeŕik zuzendu ebezan gure mutil azkaŕak. Andiko paxistak erantzungo leukie jasean.

Kanpantzar aldean paxistak zoli asi diran kañon erasoaz, baña erantzun egokia izan eben eta baketu zirean. Izkilu besterik ezan izan lanean.

Otxandiano'n, geldi-aldi. Paxiste egazkiñak bazterak ikuziaz, bare ta geldi ibili ziran guda-oin areitan.

Gesoenean, gure egazkiñak berebat egiñaz, nasai egazkatu ziran.

Orduña'n, tiroketa izan zan, baña alde bakotxak oi dauana ezer berezirik jortu bage.

Egonari dagoz beraz, oraingoan, Euzkadi'ko guda-oñetako jendeak, neguko eun gogoŕai auŕe egin eta atsedentsu egonaz.

Atzo guda-mutil bi eldu ziran paxisten igesi. Bata, San Marcial'ekoa, Ubidea'ra eldu zan. Bestea, Elofio'ra. Aretxabaleta'tik iges eginda

Salerosketa ta Orniketa

Lasa jaunak esandakoa

Janari-Edari-Erosketako zuzendari Lasa jauna pozik zan erañegungo ardao-banaketa egoki eratu zalako.

Egun osoan eŕiko edaritegiak 'kusten ibili zan Ikusle Batzordea, edarietan nastaketarik egin ote zan jakin-naiaz.

Zorionez, edeŕki bete zituzten saltzaileak gure aginduak. Eikano txaideko saltzaile bat bakaŕik zalatu zuten, baiña, ardao azteŕtu ondoren, ontzat eman zuten edaria.

Euzkadi'ko Gudarozte osoari atzo ardao erazioa banatu zitzaiola gaiñeratu zigun, 25.000 litro.

Izpaŕkari batek, eŕaziotarako liburutxurik ez zutela banatuko entzun zuala esan zion eta Lasa jaunak auxe erantzun:

Itxuraz izpaŕingirik irakurtzen ez duan batek esango zuan ori Banaketa 29'rako izango zala iragaŕi gendun, baiña, biaŕ, 22'gnez., beste bear-beaŕeko janari batzuk banatu bear ditugunez, liburutxuok banatzea, 25, 26 eta 27 egunerarte atzeratu degu.

Nekazaritza

Azi ta pentsuarekiko oaŕa

Uriko izpaŕingi bati erantzunaz eta geurekokeritan ez gabiltzela adierazteko, azalpen onetxek ematen ditu Nekazaritza-Zaingoak.

"Pentsua banatzeko, mota bakoitzeko abere buruko zenbat emango dan izentatu nai du Zaingo onek.

Bear asko dagon eŕietara izentatutakoa baiño geiago bialduko degu ta gaiñontzeko ori eunetika banatuko da.

Ori dala-ta, ila onen 16'gnez., 12.150 kilo eta 20'gnez. 52.600 kilo bialdu genizkion Barakaldo'ko Udalari.

Patata-banatzea ere era berean egin degu, luŕaldeko bakoitzeko egokitasuna ta eskakizunak eukiaz.

Ez dago beraz Zaingo ori, akatz batzuk dirala-ta, eŕurik zergatik jaurti. Akatzak zuzentzea da gure naia ere. Bear asko ta zer eman gutxi, orixe da gertatzen dana.

Zaingo onek banaketetarako erabiltzen duan jokeraren beŕi duanak, ez duala izketan-mizketan jardun-beaŕik izango. Zaingo au danentzat da berdin."

Azitarako patata eskatu dutenentzat

Azitarako patata eskatu dutenak Zaingo ontara eskatutakoa jasotzea noiz etoŕi garaiz jakinerazoko degu Ordurarte, es dedila iñor Zaingo'ko landoletara etoŕi lanpetuta daudenentzat, nekagaŕia da-ta

EGUNA JEL

Zeure Aberrijaren izkerea ezpa-dozu maitetan, eztozu maitetan zeure Aberrija bez

Lgo. urtia | 19'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 1937'gn. Urtarrilla 22'gna. barikua | 15 eunen

Alemanak larogei kañoi ipiñi dabez Ipar-itxasoan

Cordoba'ko guda-oñetan eun gudari baño geyagok iges egin dautse paxistei eta azkatasunaren aldez gudatutera aurkestu dira

Madrid utzituteko agindu gogorrak.-Malaga'n gogotsu erantzun dautse erritar gustiak gobernadoriaren deyari. Varela paxisten kenerala zauritua ixan zan Madrid'eko guda oin baten. - Beste izparrak.

Londres. — Alemanak, euren asmoak egiztuaz, erne eta zur dabiltzala, diño "Manchester Guardian" egunkariak.

Ipar-itxasoan, alemanen arazoak, itsaertzak guda-arauz gotortuteari ekin dautse.

Alde artan eta aldi labufean, 80 kañoi ezafi ditue. Izkilu aztunok ondo zaindu ta babestuak dira.

Orain, egazkin lekuak, itxasontzitegiak, gasoliña-lekuak eta lurpeko bideak egiten diardue, lur azaletik 25 metro sakonera.

EUN BAÑO GEYAGO

Valencia.—Cordoba'ko guda-oñetan eun gudari ta ixardun baño geyago igaro dira.

Esan dabenez paxisten agintarie; euren asaferik bixiena agertu eutsen jtalitafak eta alemanak etofi ondoren eurak euken egoeriagaitik.

"Guk, esan eben, abefia eta erlejiñoa aldeztuten doguz, baña ezin daikegu ontzat aftu alemanen menpian egoterik."

Geitu ebenez asafe au gudalbururik geyenen aftian igarten da eta origaitik altzaupen ugari egon dira paxisten aginaren aftian.

MADRID UTZITUTEN

Madrid.—Madrid lagateko agindua emon yake Gobernu'tik kobrauten daben puztiai. Agindu au beteten eztabenai euren sariak kenduko yakoez.

Barcelona'tik bialdutako iruroge; belbil eldu dira. Euretan bi mila lagun inguru bialdu al ixango dira.

Lastef bialduko dabez belbil gevago, bereun ta befogetamaf añafio.

Aste onetan urtengo da Frantze'rako bialduko diran umien leuengo taldia, efi arek zaintzeko.

Tafagona'ra eun eta ogetamaf ume eldu dira eta Onteniente'ra (Valencia) beste amabiko bat.

MALAGA'N GOGOTSU

Malaga.—Agintariak egiñiko deyari gaste geyagok erantzun dabe. Ixenak emon ala guda-oñetara urten dira.

Gobernadoria poz-pozik agertu da efiaren gogo onafen.

Agintariak agindutako tokiak gogoftzen daragoyoe langile gustiak.

GUDARI IKASIAK

Valencia.—Ikasten gudarosteak eral duten egoan agindua argitaratu da.

Irakasle gustiei dei egiten yake gudaroste ofeitan sartu daitezan.

Euren lanerako biarko dabezan kondisiñuak iragafi dira.

Agindu au dala-ta Irakaskintza zaingoko lagun gustiak "movilizauta" geratzen dira.

Ez jakiñaren aurkako sayaketak egingo dira. Gudari ikasi oneik bigafen guda-oñetara juango dira eta atseden egiten dagozan gudari gustiei ikastaruak emongo dautsez.

ALEMANAK MAÑUEKO'ETAN

Londres. — "The Times,'ek diñoanez alemanak nasai-nasai dabiz Mañueko'etan. Bafuan baño itxasertzean zabalkunde geyago egiten ei dabe. Zabalkunde ori kabiletako buruen bidez egiten dabe.

TOKIAK GOGORTUTEN

Madrid.—Efi gudariak ba'daragoyoe irabazitako lekuak gogoftuten.

Cerro de los Angeles'ko inguruetan geratzen diran paxisten aurka gogor joten da.

VARELA KENERALA ZAURITUTA

Madrid.—Valladolid'eko radioak esan dabenez Madrid'eko guda oñetan Varela kenerala zauritua ixan da.

Oraintsu kenerai ori joaldi bat ikusten egoala, bere oñetan obus bat jausi yakon. Geroago geyago jausi yakozan ta atzeratzia erabagi eban. Baña atzeraka joyala pusil suak atrapau eban. Iru balak jo eben eta zauri txafez gakotuta laga eben.

ARAGOI'KO GUDA OÑETAN

Barcelona.—Guda oin oneitatik emon diran agiri gustiak diñoenez bakerik ezta galdu egun osuan.

MONTSENY'REN AGERKUNAK

Madrid. — "La Libertad" izparingiak Montseny'taf Perderike'ren esanak agertu dauz.

"Frente Popular,'en sartzen diran alderdien batasuna iñoiz baño lotuago ei da, esan da emakume ministru ofek.

MALAGA'KO GUDA-OÑETATIK

Malaga.—Geruago eta izpaf obiguak yatorkuz-oñetatik. Jakinda Estepona'n ixan zan gudakia etzala ixan ersitik, esfitik ondo eutsi ixan yakolako. Itxasoz sartu ziran itxaroten etziran afen. Baña gauf ezin dira

Ondarroa'ko izparrak

Keska eta jakin-miñik ixan dogu aspaldi onetan. Gure etxea eta efia laga genduzanetik euretan zer igaro ete zan jakin gureak arduratu gauz. Gauf bafirik emon geinke.

Gosez ez ei da orañarte iñor il esaten da. Baña ofaitio gose ofek estututen gaitu. Gure efia goserik egoala, zer janik barik egoala-ta susumufurik entzun dogu aspaldi onetan. Egia ete?

Diru apuf bat dabenak gosia kentzeko lain bilatzen ei dau bastef eta sokondo asko arakatu ondoren. Andik edo emendik, ondafutaf emakumiak jaubetuten ei dira bafua atzipeluteko (engañauteko) bestegaz. Geyagorik ez. Ume askori jatetxe berezi baten jaten emoten ei dautsoe, sendiak alikatu ezin dabezalako.

Ba dira ofaitik gose itxurarik agertzen eztabenak. Txaunburua bere gaxotasunak botata, abeftzalien zifalkeri eta naigabeak emoten eutsen gaxotasuna ei zan beria-ta, edeftuta eta gizenduta ei dago. Beste gonadun lodikotia zer esanik ez. Ainbat ilten ikusi aren ez ei dau berak patxadarik eta nasaitasunik galdu. Eta puputora igota andrak minduten jarteko gogoa be izaten dau, oi eban lez, ifibafeka

Eta ez euzkeraz egin be. Ondafu'ko elcixan euzkerarik ezta entzuten. Sermoi gustiak erderaz egiten ei dira eta beñobein azalpen labuf-labuf bat euzkeraz.

Euzkereak zigof gogofa artu dau. Kalietan galazota dago euzkeraz itz-egitea eta Gorozika'ko basefitafak be, erderearen tautik jakin barik, erdereari ekin biafez aurkitzen ei dira. Amaikatxuk erabiliko dabe auntzaren izketia!

Egunotan Gorozika'ko auzune, utziñuteko agindua emon ei dabe. Salatariren batzuk ortik ibiliko ete ziran bilduŕez nunbait.

Efian geratu ziran abeftzale zafak kartujuak baño biximodu latzagua darabile. Pentsamentu edefik egifeko asti eta denporarik ixango dabe be-

◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆

auferantz egin. Gauf geratu dira betiko eta usterik gitxien danian jaurtiko diraz ankaz gora len egon ziran baño askotaz ufunago.

BATET KENERALA

Valencia.—Ziudtauta geratu da Catet gudalburuba, Burgos'ko gudaloro bategaz aurkituten zala, gudia asi zanian. aBita bayestu da erailtzarako epaitu ebena be. Eraildu ba eben, edo ezpaeben eztakigu oraindik.

MADRID'EN

Madrid.—Gauf goixian paxisten egazkiñak egin dabe ikertaldi bat, Madrid'aldeko auzune batzutara. Frkal egazkiñak berialaxe igon eben eurakaz gudatuteko. Beti lez paxisten egazkiñak anka jokuari emon dautse, eta efi-aldezlienak gogotsu jafaitu. Ordu onetan eztakigu gudaketa onen beste bafirik.

EGIAK EGINGO DAU BIDE

Londres.—Ona emen York'eko gongotzain egunerakoan irakufi doguna España'ko auzia dala-ta.

España'n, erligiñoia aldeztuben dabenak, paxistak dirala sakatu eragin gura izan dauskue, ateismoaren kontra.

Baña ez da ofela. Españan Gobernu bat dago, bidez ta legez eraldurikoa. Gobernu ofi lagundu ta bera aldeztutia izango zan lan bikañena. Baña ofi egin ordez, militar sapuak matxiñadea sortu eben. Izan be, salduta egozanta...

intzat. Bakaf-bakafik ibilfera biafturten dabez, eta bi edo iru alkafturta ikusi ordukoxe gaiñan ixaten ei dabez efi-zañak. Gabetan egiten dan zaintzea andija da. Ogetamaf falangetaf kalietatik ziaf ibilfen dira. Iru atso bafiketan sumau orduko, edo etxeren baten argia bistuta igafi orduko, an ixaten ei dira belafi zahal ta begi-zoli. Falangetafok jersei zuriak darabilez, eta asaltoko guardiak lez, makilak erabilfen dabez eskuetan.

Ume gustiak efekete eginda dabiz. Txapel gofia buruen eta egufezko armia eskuetan "un-do" ikastiari emonak dira. Ofaitiño keneral gitxi atarako dabez ondafutaf umien artetik.

Oraindik eztabe iñor il gure efiaa. Eurenak bai, ogei inguru, iges egonai ixan ebelako. Ildakuok soldaduak ziran. Ixun edo multarik be eztabe gaufarte kendu. Deba'n bai. Treku'ri ogetamabi mila ogerleko kendu dautsez. Detenidu batzuk egon dira ofatlik. Egun baten Goitia'taf Joseba Mirena, Ufesti'taf Pantzezka eta Kintin kartzelan sartu ebezan, baña gau bat eskutuan eragin ondoren ufengo jexian kanpora atara ebezan. Egunotan emakume batzuk egon biaf dira espetxean ixilpeko jardunen batem atrapau ebezalako.

Ainbeste denporan eskutauta egon zan Gaitan be an dabil bixkof-bixkof.

Salostetxe edo dendarik geyenak utzifuta dagoz. Abeftzalienak danak sakeau ebezan lenengo egunetan. Ba'dira dendariak bestion gayekaz dabiltzanak be.

Batzokian komandantzija egin dabe. Len abeftzale lez agertuten ziran emakume asko gudarien jantziak garbitzen darabilez. E. A.-B.'ko lendakari ixan zan Itufioz'taf Karmele euretariko bat. Eta emakume abeftzallok destañik eta burlarik artzen ei dabe bestiakandik.

Kofradijan egozan Elu'taf Gotzon, Urkiri'taf Luki eta Gatzagaetxebarria'taf Bedita kanpora jaurti dabez abeftzaliak ziralako. Bardin Izeta'taf Jon eta Afasate'taf Joseba Koldobika udal-etxetik. Emengo idazkari Lekuona autu dabe.

Udal edo Ayuntamentua osotuten daben gixonak onetxek dira: Santxez'taf Bingen alkate; Otxagabia ordeko, eta Astelafa, Iriondo'taf Joseba Mirena, Lafañaga'taf Efoka eta Aranbafi'taf Julen ziñegotzi. Afizabalaga'taf Mikel, "Sasi", guda-ordezkari egin dabe.

Iriondo'taf Luki eta Abadea guda-oñetan zauriluta dagoz. Guenaga'taf Efoka be efeumakin gaxotuta etxera eruan eben.

Egunotan dantzarik naiku egin biafian aukifu ei dira. Penak astuteko-edo. Estella'ko bandia antxe egon da egun bifan. Eta ondafutaf neskatilak keya atara ei dautse efeketiekaz dantzan.

Urzelai, txauneskindari edo organistiaren bafirik eztago. Eruan ebenetik ezta geyago Ondafura agertu.

Agertzia merezi daben geyagorik etxaku gogoratzen.

Izpafokaz keskati eta jakin-miñez ortik ziaf bananduta dabiltzan ondafutafak pixkabat nasaifuko dirala uste dogu. Gure guraria eurok agertzian eztą orixe besterik ixan.

LEGAŔETA'TAŔ MIKEL.

AZKENENGO IZPARRAK

Azaña'ren itzaldia.-Lekuak gogortuten Cerro de los Angeles'en.-York'eko gotzañaren idazki zuzen eta bidezkoa.-Hitler'ek itz egingo dau il onen 31'an.

KOMUNISTAK, AMERIKETAN

New York.—Lenin'en urteufena dala-ta, komunista alderdiko idazkari nagusiak itzaldi gogof bat egin dau, estaduen asmo "ez sartzekoa" dala-ta, asmo ofen aurka.

Estados Unidos'eko gobernuak, iñoan izlariak. España'ko arazoan ez sartzea dala-ta, gobernu jatofari kalte egin dautsa, eta guda ankefa luzatu- erazo.

JANARIAK ELDU

Barcelona.—Zion itxasontzitik gayak atera alean jardun dautse goiz osoan kayeko langileak.

Rusitafa da ontzi ori, eta iru mila tonelada janari baño geyago ekafi ditu katalan efiarentzat.

LOTERIAKO SARIAK

Valencia.—Atzo egin zan ileroko zoriketa lafefitafa, eta sariak onela banandu ziran. Lenengo safia, 20.255, Barcelona'ra. Bigafena, 6.842, Madrid'era. Irugafena, 2.303. Santander'era. Laugafena, 31.232, eta boskafena, 11.244 Barcelona'ra.

ESPAÑAŔ GOBERNUAREN BATZAŔA

Valencia.—Eguerdiko amabiak aufetxuan eldu ziran ministruak Benicarlo jauregira, eta Azaña jauna buru zala batzaftu ziran.

Ordubiak aldean bukatu eben batzafa, eta idazkariak, Hernandez jaunak, agiri auxe emon eutsen izpafkarijai:

Batzaf guztietan bezela, lendakari jaunari bafi ta goraberak azaldu yakaz, eta ondoren, Azaña'ren esanak entzun eta onartu ditue burukideak.

Egun batzuetan uri oneian egongo da lendakari jauna.

Ginebra'ratu dan Alvarez del Vayo ministruagan uste ta almen osoa dau gobernuak, orañarte lez lan egokia egingo dauala itxaroten daularik.

◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆

Batzafa egiten egozan bilartean, jende ugari kalcak betean egoan, Azaña lendakaria txalotu uairik.

AZAÑA'REN ITZALDIA

Valencia.—Atzo afatsaldeko seiretan egin eban, iragafitako itzaldia, España-erkaleko lendakari Azaña jaunak.

Befogetak ifatetxek bafeiutu dabe, erkal - agindupean dagozanetatik, lendakariaren itzaldi bikaña.

GUDA IZPAÑAK

Madrid. — Atzo eguerdian emon eben guda-izpaf agiria, ona Madrid aldeko guda-oñetan, igaziriko ogetalau orduetan, etzan izan esafko goraberarik.

Arerfoen egazkiñekaz, erkal'arenak bufuka bizia egin eben, eta paxisten "Junker" bi eratsiak izan ziran.

Ceuta'ko kai edo portua suagaz jozi eben efizalien egazkin azkafak.

LEKUAK GOTORTUTEN CERRO ROJO'N

Madrid.—Cerro Rojo gotortuten jardun eben atzo egun osoan erkalaren gudarostiak.

Paxistak, izkilazkafez oldartuten eutsen, baña ondoren onik lortu baga. Muño ori efizaleak artu ebenetik ezda aldakuntzarik izan.

Paxisten ifatizkiñak iñun tiranak esaten ari dira, baña guzufez, alegie-

Efizalien aldafaldiari eutsi eziñik dagoz, efekete ta erbesteko. Ofa egia.

GENERALITATEKO GUDA-AGIRIA

Barcelona.—Atzo afatsaldean Generalitat'ek emon euskun oafia:

Ipar-aldeko guda-oñetan: Ignes inguruan, gudari bat eldu da geure aldera. Tiers eta Granja aldeko oñetatik, asaldarien egazkiñak ibili dira. Lapozano'tik Hueska'ra jaurti dabez kafionazu batzuk, paxistak.

Erdiko oñetan: Paxisten egazkiñak bifitan jardun dabe bonbak jaurtitzen, ezer iortu bage.

Ebro guda-oñetan: Eguerdian, paxistan zerbait igitu nairik asi dira, baña erkalaren zaintzale diran gudari efimeak gogor erazo dautse eta zigor itzala leporatu.

PORTUGAL'EN BAKETAN BIZI DIRA

Lisboa.—Atzo afatsaldean, Guda-ministruak oar bat emon eban.

Portugal'en ezotariko goraberarik ei dabe jazo iñoan, eta bakea zala Estadu osoan nausi.

HITLER'EN ITZALDIA

Berlin.—Hitler bere bizitokian dago, bere otsein Goering noiz biurtuko dan zain.

Ila onen ogetamargafenerako itzaldia gertauten diarduela diñoe politikoak. Itzaldi ofetan irugafen Reich'ak, erbesteko arazoetan zer jokaeraz ai bear daneko eritzia azalduko ei dau.

ESPAÑAR ERKALAREN EGAZKIÑAK

Gibraltar. — Ceuta'ko kayan zorti bonba jaurti dabez espafiar Gobernu jatofaren egazkiñak.

Uri ontatik argi argiro ikusi zan egitada ori, ondorenaren bafi eztakigun afen.

◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆◆

Nork asmatua da naste au?

Lengo egunean egian iges egin zion amonatxo afekin topo egin det gauf ere befiz. Oingo ontan nerau asi natzayo galdezka.

—Eta, amonatxo, aaztu al zaizu lengoan esan nizuna? Uraxe zan ba egia. Guda ta naaste onen asmatzuleak españaf "deretxa ixuri bedeinkatuek" ditugu.

—Zeñek asmatua dau ezdakit nik baña bere kalteak nork ordaindu beafko dituen. ori bai, ba dakit: basefitafak. Pakea dala nai guda dala gu beti galtzale.

—Ta nor izan da basefitafen etsai amorfatuena? Zein kalterik geyen egin izan dina?

—Nik entzun detanez "bizkaitafak", erantzun zun mingafia ortzakin zularu, noski.

—Bañan, amona, zuk gezuf-ituritik edaten dezu nunbait edo gezuf-naitik jan edo biyak batera. Basefitafai, euzko basefitafei bereziki kalteik geyen egia diyena "derechas españolas" izenakin agertzen zaigun talde naastua izan dala ez al dakizu nik baño obeto? Bai, noski. Eta euzko nekazarien aldezle ta laguntzale bakafak euzko-abeftzale edo zuri okefeko begitik saftu zaizkitzun "bizkaitaf" gaizto oyek izan dirala ere ez al dezu beiñere entzun? Bai, noski, ta ez bein bakafik, maiz entzun eta aspaldidik dakizkitzun gauzak dira niri esan-arazten dizkidatzunak.

—Bañan zergatik dijoaz beren buruk kristau ta katolikotzat daukaten bizkaitafok, uskurtz edo erlijioaren etsai amorfatuenakin bat eginda, benetako katolikoen aufka? Ez al luteke onekin bat eginda kristauen etsayen aufka jokatu beaf? Basefitaf guziok katoliko geralarik eta "bizkaitafok" gure aldezleak baldin ba dira ez al luteke oingoan ere geren alde jokatu ta gudatu beaf? Eingo nuke erantzun ezetz.

—Zeñek jafi ditu, amonatxo, bizkaitafak katolikoen aufka edo beren buru katolikotzat daukatenen aufka? Bufuka asmatzen danean, asmatzaleak berak auketratzen du zein izango dan bere aldeko ta zein bere etsai. Bere aldekoai esaten die: Jo ura, il bestea, zauritu emendiko au, ta esanda egin berak asmatutako bufuka ixten da. Olaxe egin dute "derecha" izeneko talde naastrak ere... Jo, komunistak, zauritu gofiak, il langiliak eta abeftzaleak, eta zer egingo zuten euzko-abeftzale edo "bizkaitafak"? Besoak tolestuta eriotzaren zain egon? Euzko-nekazari ta basefitafak erailtzen utzi etsaiei? Ez, amona, ez. Jainkoa'ren agindua etzan ori. Efiaren alde, langileen alde ta batez ere basefitaf katolikoen alde jeiki iran egizko katolikotasuna beti egiteetan erakutsi izan duten bizkaitafak. Ara of erantzunda zuri zere etxejabe diru zale "derecha"ko jaunak buruan saftu dizkitzun gezuf piloak. Geigo nai al dezu?

—Aguf, ufen afte, esand lotsaz beterik jun da amona oingoan er-

PAKE-NAJ

Kaleko marmarra

Erria ta faxiozaleak

¿Nork?

Une ontan ez nizueke esango. Baño norbaitek esan du.

Apustu. Faxiozaleren baten mingain nardagafia etzan ufuti ibiliko.

Izan ere, ¿zer egin oi dute efi guzietako faxiozaleak?

Aundinaikeri geiegizkoak darabilzkin gizon oiek, efiarenganuntz nola joan ez dute ikasi. Ezin zaie burura sartu.

Marte'ko bizieraz dakiguna dakite efiaren bizieraz.

Efiak ez du bururik, efia mando aundia da, efia ez da gai emendik ofera bere oñez joateko.

¿Eta zergatik?

¡A! Oar, Clemenceau'ren itzak: "Ona Efi-Gizartearen muiña: Zuzentza, Azkatasuna, Eskubidea; gudari-gizartearen, militar gizartearen muiña, berfiz, ezi bearra da, arauaren-legea, menpetasuna".

¿Lelokeriak esaten besterik ez dakiela efiak?

Efi onak, lanaren agiria eskuetan duelarik nonai ta noranaira joateko gai dan efiak, odolean daramaiki Efi Gizartearen muiña: Zuzentza, Azkatasuna, Eskubidea. ¡Orixe ezin eman faxiozaleak, orixe ezin eman indafaren gurtzaleak!

Ez da afitzeko. Efia zer dan ikasteko, kaleko itxasorantz iriki bear dira biotzaren leioak. Zabal zabalik iriki. Efiaren marmar, ots da itz guziak fritxi ditezen. Zabal-zabalik iriki. Gañerontzean, ¿efia zer dan nola ikasi?

¿Euzkadi'ko faxiozale ta oien kidekoak iriki al dituzte iñoiz biotz ateak efiaren bizieratzaz jabetu al izateko?

¡Zer dakite ufez estalitako astoak!

Oar, efi-afiko bateri lengo batez entzuten niona:

—Ez al dek motel oso zaila guda onen zergatiatzaz jabetzea. Ara. Militafak, faxiozaleak, indar zaleak, era batera ikusten dizkitek gauzak. Efiak, befiz, beste batera. Militafak, beste guzien gañetik jafi naiezko ametsean bizi dituk. Efiak, bidezko danez, bere mendeko naf dizkik militafak. ¡Ona emen gudaren zuztraia! Etofi dituk auteskundeak: militar eta militar zaleen ametsak ankaz gora joan dituk. Baño oiek makurtu? ¡Bai zera! Lapufarena egin ditek. Efiak, ¡koitadua! arerio aundienen esku utzi dizkik Latefi zaintzarako izkiluak. Eta izkilu beroekin, gau batez, efi guzia lo zanean, txarkeririk itxaro etzunean, efiaren aurka jauiki dituk militar ta militar-zaleak. ¡Lapufak oi duan bezela! Guziak lo diranean. Iltzera dijoanak agifiak erakutsi ezin ditzazkenean.

Auxe da efia. Gisa ontako lelokeriak esaten daki efi onak, lanaren agira eskuetan duelarik noranaira joaten dakin efi onak.

¿Faxiozale ta oien kidekoak zer da kite efiatzaz?

Marte'ko bizierari buruz guk dakiguna gutxi gora bera.

UZTURE.